ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-11-12
ASTELEHENA
385. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

MIREN ARREGI

"Letxugak landatzeko erabiltzen zuten gure arbasoek bainuontzia"

Jose Antonio Azpiazu | Historialaria | 7

Ume ijitoek aste bukaera ahaztezina pasa dute | 2

Jendeak ondo erantzun dio Elikagaien Bankuak Hiper Eroskin egindako janari-batzeari | 4

'Erlauntzaren sekretua' argitu zuten Bergaran | 29

Oihana Kortazar, asfaltoan ere erregina

Elgetakoa emakumezko azkarrena izan zen; Ibarreko atleta onena, berriz, Yerai Varela | 23

Oihana Kortazar, pozik helmugan.

JOSETXO ARANTZABAL

Umore onean ibili ziren 15 talde Oñatin zinegile

Oñatiko Laburmetrai Rallyak ikusmina piztu zuen | 30

Talde bat, lanean. | JOSETXO ARANTZABAL

Kooperatiben urtea borobil bukatu zen, domekako jai arrakastatsuarekin Durangon | 4

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

%50 eko deskontua

gahir fisioterapia osteopatia
GAHIR
Fisioterapia-Osteopatia

► Zoaz 21. orrialdera.

Pobrezia irakasgai denean

Madrilgo Cañada Realgo 'El Gallinero' txabola herrixkako 37 gaztetxo gurean izan dira asteburuan; Gomiztegi, Arrikrutzeko kobak eta Donostiako Aquariuma bisitatu dituzte

MAIDER ARREGI | BERGARA

Egoera gogorren aurrean irribarrea aurpegian marraztea zaila dela uste dugunean, *El Gallinero* -ko gazteek eskema guztiak apurtzen dizkigute. Raul, Madalin, Soronza, Isaac, Bianca, Suedia... oso gutxirekin bizi dira, baina guk albo batera utzita ditugun balioak puri-purian dituztela erakutsi digute. "Denak ezin genituen ekarri eta 37 haurrekin etorri gara; zaila egiten zaigu azaltzea zergatik batzuk txabola herrixkan geratu diren, baina lortzen dute barneratzea; oso gogorrak dira eta badakite errealitatea eta normalizazioa erakusteko egiten ditugula irteera hauek", azaldu digute Cañada Realgo Santo Domingo eta San Carlos Borromeo parrokietako lau boluntarioek. 8 eta 11 urte bitartean dituzte eta eguen arratsaldean Elosuko apaiz etxera iritsi ziren. Asteburu osoa eman dute gure artean. "Oso pobreak dira eta pena ere eman digute; etxean genituen arropak eman dizkiegu", azaldu digute Mariaren Lagundiko Beñat eta Iñaki ikasle gaztetxoek. "Futbolean, sokatiran, pilotan... edozein kiroletan oso onak dira!", diote.

Erronka gogorra

Gizarte Integraziorako goi mailako hezkuntza zikloko ikasleek proposatutako proiektua da. "Sekulako erronka eta esperientzia izan da gure ikasleendako. Guztiz aberasgarria euren ikasketak osatzeko eta sendotzeko", esan digu Susana Apariciok, Lanbide Heziketako irakasleak. "Gauza gutxirekin oso pozik bizi daitekeela erakutsi digute umeek. Beste ikuspuntu positiboago batetik ikusten dituzte gauzak", dio Leire Peña ikasleak.

DATUA

130

UME

Orain sei urte, 5 bat ume zihoazen eskolara; egun, 120-130 eskorala joatea lortu dute boluntarioek.

ESANAK

"Gutxirekin oso pozik bizi daitekeela erakutsi digute umeek"

LEIRE PEÑA | IKASLEA

El Gallinero-ko umeak Bergarako ikastetxeko patioan. | MAIDER ARREGI

JORGE FERNANDEZ
BOLUNTARIOA

"Herrixkako umeen ia %80 eskolara joatea lortu dugu sei urteko epean"

MAIDER ARREGI

Jorge Fernandez boluntarioak *El Gallinero* ijitoen herrixkan sei urte daramatza lanean Cañada Realgo Santo Domingo eta San Borromeo parrokiekin elkarlanean. Txabolaz osatutako herrixkako 37 umerekin etorri da gurera.

Zein da *El Gallinero*-ko errealitatea?

Errealitate hori ezagutu egin behar da ulertzeko. Adibidez, Bergarara joateko autobusaren zain geundela, euria ari zuen. Dena lokatzez beteta, aterpe barik, eta babesean egoteko tokirik gabe egon gara 37 umeak eta lau begiraleak. Txabolek itoginak dituzte eta oheak bustita lo egin behar dute. Ezin duzue imajinatu zelako baldintza gogorretan bizi diren.

Eta eguneroko bizitza?

Haurrak eskolara joaten dira goizean eta bueltan egoteko tokirik ez duten txaboletara bueltatzen dira. Ezin dituzte etxeko lanak egin eta ikasketak egin; oso leku txikian dena dute, sukaldea, ohea... ez dute intimitaterik ezer egiteko. Horrela ezinezkoa dela egoera normalizatzea eta oinarrizkoa edukitzea konturatu gara. Bertako 100 familiak oso txiroak dira; ez dute komunik eta 500 pertsonak euren beharrak kalean egiten dituzte.

Instituzioek zein erantzun eman diote egoerari?

Errealitate gordin horren aurrean instituzioek beste alde batera begiratzen dute. Oinarrizko baldintzak ere ez dituzten arren. Lanean hasi ginenean, orain 6 urte, 5 bat zihoazen eskolara; egun, 120-130 doaz. Eskolara joatea ez da hain erraza eurendako, minimo batzuk bete behar dituzte-eta; tartean, arropa izatea. Pobreziaren usaina dute, pobreziak usaina du-eta. Horren guztiaren errua eurak datozen pobreziak dauka, eurek soilik dakitena. Heroiak dira, goizean normaltasun baten barruan bizi dira eskolan, eta gero errealitate gogor batera bueltatu behar dira eta ez dira erotzen! Gero administrazioak eskatzen die egoera ezberdinetara adaptatzeko; harrigarria. Oso zaila da administrazioa sentsibilizatzea umeek bizi duten egoera larriaren aurrean.

Zer lortu duzue?

Osasun arloan umeen %100ek txertoa jasotzea; hasi ginenean gehiengoa txertatu gabe zegoen. Bertako medikuak eta erizainak 5 urtean lortu dute hori. Baita emakumeen arreta ginekologikoa izatea ere —jaiotza-kontrola lortu dute, oso zaila dena ijitoen artean—. Hezkuntza arloan ere ia %80 eskolaratzea lortu dugu. Baina oraindik badaude oinarrizko beharrak ere; esaterako, egunero jatea.

Zer erakutsi dizute?

Sekulako poztasuna eta eskuzabaltasuna erakusten dute. Sentsibilitate handiz, duten gutxia konpartitzen dute.

SORONZA
'EL GALLINERO'-KO UMEA

"Oso jatorrak dira hemengo umeak. Joko asko egin ditugu eta asko gustatu zait Bergara; baina nire etxea ere gustuko dut. Lagun asko egin ditut".

JULENE ARANA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEA

"Umeak eskolaratzeko motibazio lanetan eta dinamizatzaile gisa ibili gara. Hirugarren mundua ematen du. Katuen tamainako saguak dituzte han".

ISAAC, SUEDIA ETA ESTERA
'EL GALLINERO'-KO UMEAK

"Maitatuta sentitu gara; oso onak garela futbolean esan digute. Nire irakasleak esaten du garrantzitsua dela eskolara joatea. Irakurri, jolas egin, eskulanak egin... goizero hartzen dugu autobusa eskolara joateko".

YERAI, MARKEL ETA GORKA
MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEAK

"Ondo moldatu gara eurekin. Eskuzabalak izan behar dugula eta lagundu egin behar diegula ikasi dugu; oso baldintza gogorretan bizi dira, eta pena eman digute. 4 pertsonak lo batera egiten dutela diote".

ANE, LEIRE, ABINET ETA MIREN
MARIAREN LAGUNDIAKO IKASLEAK

"Euren argazkiak ikusten egon gara eta pena eman digute. Gogorra da, eta ume txikiagoendako gogorragoa oraindik. Izen arraro baina politak dituzte. Pixka bat lotsatuta daude, baina jatorrak dira. Arropa eskatu digute eta guk etxetik ekarri dugu erabiltzen ez duguna".

Ogitarteko solidarioa jan zuten ume guztiek. | MAIDER ARREGI

Sokatira eta euskal jokoak asko gustatu zaizkie. | MAIDER ARREGI

Elosuko aterpetxean tripa-zorroak kentzen. | MARIAREN LAGUNDIA

"Zapatuan berriz eskolara joango gara?"

Gomistegi bereziki gustatu zaie *El Gallinero*-ko umeei. Artzain txakurren erakustaldia egin zieten, eta "adi-adi eta isil-isilik" jarraitu zuten, bai erakustaldia, bai Gomistegikoek azaltzen zietena. Horrekin batera, ikastolara oso gustura joan dira; egubakoitz arratsaldean, ume batek arduradunari "Bihar eskolara joango gara?" galdetu zion.

Domeka eguerdian bueltatu ziren ume ijitoak etxera, Bergaran egin dituzten lagunak gogoan dituztela; haiendako marrazkiak, gorantziak eta patxoak utzi dituzte.

Mariaren Lagundiko arduradunek azpimarratu nahi dute debagoiendarren "laguntasuna eta pazientzia" ere: "Harrituta geratu gara erantzunarekin; jende guztia egon da laguntzeko gertu", esan digute.

Ume ijitoek marrazkiak egin dituzte lagun bergararrendako. | MARIAREN LAGUNDIA

Elikagaien bankurako oinarrizko elikagaiak batu dituzte asteburuan

Krisiagatik eskaerak asko ugaritu dira orokorrean eta Gabonak datozela-eta eskaera igoera ere nabaria da

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Jose Antonio Agirrebeña Bergarako Elikagaien Bankuko kideak esan digu urte guztian zehar izaten dutela oinarrizko elikagaien eskaera elikagaien bankuan. Hala ere, laster Gabonak datozela-eta, garai honetan eskaerak ugaritu egiten direla kontatu digu, eta horiei aurre egiteko, urtero egiten duten bezala, aurten ere oinarrizko elikagaiak jasotzen ibili ziren egubakoitz eta zapatuan Arrasateko Eroski hipermerkatuan.

Gipuzkoako Elikagaien Bankurako batu dituzte oinarrizko elikagaiak egunotan Eroskin. Oiartzunen dago kokatuta Gipuzkoako Elikagaien Bankuko egoitza nagusia duela 15 urtetatik eta Bergaran joan zen urtean hasi ziren horrekin.

Neskatila elikagaien bankurako janaria kaxan uzten. | JOSETXO ARANTZABAL

Eskaerek gora egin dute

Krisi garai honetan, gainera, eskaera asko ugaritu dela kontatu digu Agirrebeñak: "Ideia bat egiteko, joan zen urteko apirilean Debagoieneko eta baita Beasain, Mutriku, Deba, Eibar, Elgoibar inguruko zortzi entitateri (udalak, Caritas, etorkinen elkarteak...) banatu genien jana, guztira 282 pertsonari. Gaur egun, baina, 32 entitateri banatzen diegu jatekoa eta guztira 2.200 pertsonatik gorak jasotzen dituzte guk batutako elikagaiak".

Beraz, garrantzitsua da herritarrek horrelako janari bilketetan euren laguntasuna ematea. Eroskin batu dute arroza, dilistak, olioa, esnea, pasta eta kontserbak, besteak beste.

Agirrebeñak esan digu erantzun ona izan duela asteburuko ekimenak eta jendeak laguntzen duela ahal duen heinean behintzat.

Ume eta heldu piloa joan zen Kooperatiben Festara

Debagoiendar asko ere joan ziren Durangora, ikuskizunez, jolasez, azokaz... gozatzera

L.K. | ARRASATE

Aurreikuspenak gainditu zituen Konfekoop kooperatiben federazioak atzo egin zuen Kooperatiben Festak. Halaxe aitortu zuen Konfekoop-eko presidenteak, Javier Goienetxeak, eta eskerrak eman zizkien Durangora, Landako gunera eta Plateruenera joan ziren guztiei. Tartean, debagoiendar asko zebiltzan: oñatiarrak, aretxabaletarrak...

Jaialdiarekin, borobil bukatu ditu Konfekoop-ek Kooperatiben Nazioarteko Urteko ospakizunak.

Umeen momentua

Goizean, Landakon zinta moztearekin batera, ume eta guraso piloak jaiari ekin zioten. Goiz osoa umeendako izan zen, eta primeran pasatu zuten ipuin kontaketarekin, puzgarrietan eta Garaionen ludotekan.

Irrien lagunekin zoramena piztu zen umeen artean. Eurek ondo ezagutzen dituzten abesti piloa kantatu eta dantzatu zituzten denek batera.

400 txartelak

Goizean ere, kooperatibek euren produktuak –txakolina, ardoa, gazta, barazkiak, loreak...– erakutsi zituzten azokan, eta horrek ere harrera bikaina izan zuen. Bitartean, Eroskik Sannia bere markako produktu osasungarriak banatu zituen, doan.

Bazkaria izan zen beste ekitaldi jendetsuenetariko bat: 400 txartelak, guztiak saldu ziren, eta Ausolanek prestatutako menua jan zuten.

Bazkalostean giro lasaiagoa egon zen, arratsaldean *Hostoak* ikuskizunarekin eta Oihan Vegaren DJ saioarekin gozatzeko zain.

Bisitariak Landakon, kooperatiben postu artean. | AMAIA TXINTXURRETA

ARANTZAZUKO PARKETXEA

Bioaniztasunaz saio interesgarria

Debagoieneko bioaniztasunari buruzko jardunaldi interesgarria gidatu zuen zapatuan Mikel Olano basozainak Arantzazuko Parketxean. Ibai, baso, harkaiztegi eta landa ekosistemetako bioaniztasuna aztertu zuen Olanok, eta zenbait ekosistematan bizi diren animalia eta landare espezie kopurua eta motak, populazioaren tamaina eta bizi-irauteko izan ditzaketen arrisku posibleak ere azaldu zituen.

DYAren ordezkaritza berria zabaldu zuten zapatu eguerdian Bergaran

A.T. | BERGARA

Bergarako Udalak Martoko kalean dagoen lokal baten lagapena egin dio DYAri. Hain justu ere, zapatuan sinatu zituzten paperak DYAko presidente Jose Luis Artolak eta Bergarako alkate Jesus Elortzak. Horrekin eta ondoren egin zen ekitaldiarekin, inauguratuta geratu da DYAren Bergarako egoitza berria. DYAko presidenteak esan zuen aspalditik zuten erronka bat zela Bergarako zonaldean kokatzea DYAko lokal bat. "Azken urtetan ilusio handiarekin ibili gara Bergaran lokala lortu nahian, eta azkenean lortu dugu. Oso pozik gaude, gustura", zioen Artolak.

Zerbitzuak eta boluntarioak

DYAk eskaintzen dituen zerbitzu guztiak jasoko dira bertan: anbulantzienak, gizarte zerbitzuak, prebentzio eta formakuntza lanak... Horretarako, boluntarioen lana beharrezkoa da. Gaur egun DYAk 450 boluntario ditu eta Bergarako egoitzan 15 lagun inguru izango dira. Artolak dei egin du, jende berriak boluntario egin nahi badu, eurengana hurbiltzeko: "Jendeari esan nahi diogu hemen gaudela eta boluntarioak ongietorriak izango direla. Jendeak beste batzuei laguntzeko gogoa eta grina badauka, etor daitezela guregana eta geuk emango diogu formakuntza".

Debagoieneko bakarra

DYA Debagoienean sortu zenetik, Antzuolan izan du egoitza orain arte.

Hala ere, urte askoren ostean, orain Antzuolan arazo bat izan dute lokalarekin eta, hori itxita, Bergarako egoitzak hartuko du Debagoieneko DYAko lekukoa. "Pena handiz utzi dugu Antzuola, hala ere, horrek ez du esan nahi ez garela bertara bueltatuko, baina zerbitzu berak eskaintzen jarraituko dugu Bergaran ere", zioen DYAko presidente Jose Luis Artolak.

DYAko kideak eta Bergarako Udaleko ordezkariak, zapatuan. | OIHANA IRAOLA

Tokikom indartzeak zerbitzu hobea ekarriko die herritarrei

Urte oparoa izan du Tokikomek, tokiko hedabideen elkarteak; besteak beste, 10 bazkide berri batu zaizkio eta orain 30en bueltan daude

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Tokikom enpresak batzar nagusi berezia egin zuen egubakoitzean MUren Aretxabaletako fakultatean. Helburua zen informazioa partekatzea bazkideekin eta gonbidatuekin egindako bideaz. Izan ere, bazkide izan daitezkeen beste hainbat hedabide ere gonbidatu ditu Tokikomek, eta batzarrean bertan 10 bazkide berriren hautagaitza aurkeztu zen. Modu horretan, Tokikomek bete du bere eginkizunik behinekoena: toki komunikabideen bilgune izatea hil honetan bertan eratzekoa den Euskal Hedabideen Elkartean.

Urte gogorra

Orain arte egindako bideari dagokionez, berriz, urtebeteko ibilbidea egin du toki komunikabideen elkarteak, eta bide hori gogorra izan dela aitortu du Inazio Arregik, Tokikomeko zuzendariak: "Lehen urtea, enpresa guztietan moduan, gogorra izaten da. Emaitzak ez dira ikusten, denborarekin etortzen direlako. Horiek lortzeko, baina, lehen urtebetean edo bi urtean gogor lan egin behar da, estutasunak pasatu eta ausartak izan, eta lehen enbata datorrenean atzera egin barik aurrera egin. Ikusiko dugu ea egoera zail hauek gainditzen ditugun eta hobera egiten dugun".

Tokikom enpresako bazkideak, Aretxabaletako fakultatean. | JAGOBA DOMINGO

Bien bitartean, jakina, lanean segituko dute Tokikomen: "Publizitate arloa lantzen ere bagabiltza. Ez da momentu ona, denok dakigu zela dauden enpresak eta zela dagoen publizitatea. Baina uste dugu denok batuta eskaintza hobea egiteko aukera dugula. Hortaz, gutxieneko estruktura antolatuta, bezeroari gure hedabide guztien eskaintza bateratua lantzen ari gara, eta aurkezten bezero handien etxeetan eta administrazioan ere bai, ea hortik zerbait bideratzeko modurik badugun".

Tokikom indartzea

Bestalde, Mikel Irizarrek, Tokikomeko presidenteak, Tokikom indartu beharra dagoela azpimarratu du: "Lehen urte hau oso oparoa izan da. Tokikom sortu zen 20 bazkiderekin eta gaur beste bederatzi bildu dira. 30 bazkideren bueltan gaude, eta hortik etorriko dira gero planteamendu zehatzak. Adibidez, erakundeekin hitzarmengintzara jo gura dugu, deialdietatik irtenda. Bestela, urtero erakundeek egin behar dute sekulako lana deialdia antolatzeko, eta guk sekulako lana deialdiari erantzuteko. Eta urtetik urtera hor galerak eta higadurak daude. Hortaz, tokiko hedabideok azpisektore moduan antolatzen bagara, guretako dagoen poltsa izan daiteke hitzarmen bidez erakunde eta Tokikomen artean hitzartutakoa, eta helburua da hori egonkortzea denboran, eta kudeaketan hobekuntzak egitea. Tokikom indartzen dugun neurrian eta denok Tokikomen gauden neurrian, Tokikomek indarra izango du erakundeekin merkatuan eragiteko eta herritarrei ere zerbitzu hobea eskaintzeko".

Eguenean euskal identitatea berbagai

Z.V.D.M. | ARRASATE

Hizkuntza identitateak nazio identitatean duen eraginaz eta alderantzizko joeraz egingo dute berba Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendariak, Julen Arexolaleiba soziolinguista eta Huheziko irakasleak eta Andoni Olariaga filosofoak. Horrez gainera, Kataluniako egoera ere hartuko dute ahotan gonbidatuek. Bai Euskal Herriari taldeak eta Arrasateko Udalak antolatu dute euskal identitateari buruzko mahai ingurua. Kulturateko areto nagusian izango da eguen honetan, hilak 15, 19:00etatik aurrera.

Bai Euskal Herriari taldeko kideek 260 arrasatearren artean identitateaz inkesta bat egin zuen eta behin herritarren nortasun kontuez galdetuta, euskal kontuak izango dira nagusi eguenean.

Martxelo Otamendi. | ARTXIBOA

MAIDER ARREGI

Martxan daude bidegorriko lanak

Proiektuan zenbait aldaketa egin ostean, hasi dituzte Zubillaga auzotik Oñati herrirainoko bidegorriaren lanak. Errepide nagusian egongo da kokatuta bidegorria, hain zuzen ere, Oñatitik San Prudentziorako norabidetik. Zulaketa lanak egiten dihardute, eta trafikoan eragina edukiko du; horren erakusgarria da semaforoak ipini dituztela Fagorreko biribilgune parean eta Bikoitz jatetxe aurrean.

Kolonbiako bahiketa ekarri zuen Bergarara Huegunek

Egubakoitzean aurkeztu zuen Asier Huegunek 'Kolonbian bahituta' liburua Bergarako Gaztetxean

Z.V.D.M. | BERGARA

Asier Huegunek lehenengo pertsonan bizitakoak jasotzen dira *Kolonbian bahituta* liburuan eta Bergarako Gaztetxean aurkeztu zuen egubakoitzean.

Libururik ez hasieran

Eguneroko izatetik liburu izatera igaro dira Asier Huegunen bizipenak. "Sekula ez da nire intentzioa izan liburu bat kaleratzea, kasualitatea izan da".

Azaroaren 24an bederatzi urte beteko dira Kolonbiako ELN taldeak askatu zuela; 74 egun egin zituen donostiarrak bahituta. "Bahituta nengoela, nire egoeran zeuden beste batzuek idatzi egiten zutela ikusita hasi nintzen. Esaldi luzeak idazten nituen, baina orriak gastatu ahala, motzagoak izaten hasi ziren, gertaera esanguratsuenak jasotzen nituen bakarrik. Zurrumurruak zeuden ez zigutela egunerokoak gurekin eramaten utziko, baina agintariak baietza eman, eta akaso liburu bat idatziko nuela esan zidan gainera. Barre egin nuen orduan".

Gari Udabe kazetariak idatzi du liburua. "30 orduko elkarrizketak egin genituen, eta dena transkribatu zuen. Niretzako gordetzeko zen hasieran, baina berak eskatuta liburua egiten amaitu dugu. Bagenekien Txalapartakoekin kaleratu behar genuela". Mikel Sotok lagundu die *Kolonbian bahituta* liburuaren edizioan. "Bitxia izan da liburua egitea, eta aldi berean, polita".

Debagoieneko udalek 1,9 milioi euro itzuli behar dizkiote Foru Ogasunari

Udal Finantzazio Foru Fondoak likidazio negatiboa izan du 2012an; dena dela, udalak ohartarazita zeuden joan den maiatza ezkero

T.M./L.K. | ARRASATE

Zerga bidez aurreikusi baino gutxiago jaso du Diputazioak, eta ondorioz, 2012rako Udal Finantzazio Foru Funtsak likidazio negatiboa izan du. Udalak finantzatzeko tresna nagusietako bat da hori, eta diru-aurrerapen bidez funtzionatzen du. Bada, Gipuzkoako udalek, denera, 22,7 milioi euro itzuli beharko dituzte; herri bakoitzak proportzioan ordainduko du.

UFFFaren likidazioaz egin zuten berba Foru Ogasuneko ordezkariek eta Gipuzkoako alkateek, joan den astean egin zuten ohiko bileran. Horrekin batera, 2013rako zerga-bilketa aurreikuspenak azaldu zizkien Ogasunak alkateei, eta hortik etorri ziren berri onak, izan ere, zergen bidez aurten baino 19,2 milioi euro (%5,13) gehiago jasotzea espero du Foru Aldundiak. Horrez gain, opor fiskalen gainean hartutako erabakiaren ondorioz, 2,3 milioi euro jasoko dituzte udalek.

Foru Aldundiak Gipuzkoako alkateekin otsailean izandako batzar bat. | GFA

Ez da ezustekoa izan

Debagoieneko udalek 1.940.791 euro itzuli beharko dizkiote Foru Aldundiari, tamainaren arabera. Hala, Arrasatek 686.706 euro itzuli beharko ditu, eta Leintz Gatzagak, 12.229.

Eskoriatzako alkatea, Beñat Herce, batzarrean izan zen eta, haren esanetan, jakinarazpen hori "ez da inorendako ezustea izan". Maiatzean ohartarazi zien udalei Ogasunak UFFFren bidez jaso beharrekoa aurreikusi baino %10 gutxiago izango zela –azkenean, %8 gutxiago inguru izan da–; hortaz, udal bakoitzak horren arabera egin ditu egin beharreko aurreikuspen ekonomikoak.

Berez, otsailean itzuli behar dute dirua, baina Diputazioak udalek egin ditzaketen proposamenak aztertuko ditu.

DATUA

%5,13
DIRU GEHIAGO
Datorren urteko zergen bidez aurten baino %5,13 gehiago (19,2 milioi euro gehiago) batzea espero du Foru Ogasunak.

%8
DIRU GUTXIAGO
Maiatzean, UFFFren likidazioa aurreikusi baino %10 txarragoa izango zela aurreikusten zen; azkenean, %8 inguru txarragoa izan da.

Lacorrek fakturazio errekorra lortu du: 28,7 milioi

L.K. | BERGARA

Sukaldeko tresnak egiten dituen Bergarako Lacor enpresak bere markak apurtu dituen fakturazioa lortu zuen 2011ko ekitaldian: 28,7 milioi euro, hain zuzen ere. Horrez gain, salmenten ia erdiak, %45, atzerrian egiten ditu, batez ere Frantzian, Portugalen, Alemanian, Belgikan, Txilen eta Singapurren. Enpresaren iritziz, kalitateari eta I+G+b atalean egiten dituen inbertsioei zor dizkie emaitza on horiek. Aurtengo ekitaldian, fakturazio on horri eustea aurreikusten du Lacorrek.

Internazionalizazioa eta I+G+b dira Lacorren apustu estrategiko nagusiak. Bigarren arlo horretan, produktu berriak sortzeko eta saltzeko erabakia hartu du. Hala, urtero, produktu sortu berriak Lacorren katalogoaren %20 dira, eta azken hiru urteotan 400 erreferentzia berri sartu ditu bere eskaintzan; denetara, 3.500 erreferentzia batzen ditu bere katalogoak.

Lacorren bezero handiena ostalaritza sektorea da (salmenten %70).

Enplegua 2003ko mailan dagoela ohartarazi dute

L.K. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak datu eta iragarpen kezkagarriak plazaratu ditu ekonomiaren azaroko azterketan: EAEko enplegua 2003ko mailara jaitsi da. Horrela jarraituz gero, EAE "hamarkada oso bat galtzeko zorian" dagoela esan du Zuzendaritzak.

Urrian, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren aurtengo hirugarren hiruhilekoko emaitzak argitaratu ditu Eustatek. Lana zuten 905.000 lagun pasatxok, eta "kopuru hori oso hurbil dago 2003ko lehen hiruhilekorako kalkulatu zen enplegu mailatik, une hartan 904.500 langile zeudela estimatu baitzen", esan du Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak. Datua txarra da, izan ere, "egon badago alde handirik orduko eta oraingo datuen artean", gaineratzen du: "garai hartan lanpostuak etengabe sortzen baziren, oraingo koiunturan kontrako joera da nagusi".

Dani Larrea | EMUNeko zuzendari nagusia

"Euskara erakundeetan normaltzeko, enpresetan liderrak behar dira"

Arrasateko EMUN kooperatibak 15 urte bete ditu euskara lan arloan normalizatzen

Dani Larrea. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

EMUNeko zuzendari nagusiak, Dani Larreak dioenez, euskara enpresan eta erakundeetan normalizatzeko, ezin da gazteen zain egon; gaur egungo arduradunak hasi behar dira.

15 urte azkar esaten da. Zela aldatu da EMUN?

Asko aldatu da. Hiru lagun hasi ginen eta orain 87 gara. Horrek dakar proiektu gehiago edukitzea, metodologia bat garatzea, lokal gehiago izatea... lokal nagusia Arrasaten dugu, baina Derion, Andoainen eta Iruñerrian ere bagaude. Asko aldatu da, bai; onerako esango nuke.

Lehen baino balio erantsi handiagoa du euskarak?

Kontzeptu hori gero eta modu zabalagoan ulertzen da. Orain dela urte batzuk, balio erantsia errentagarritasun ekonomikoarekin lotzen zen; gaur, gizarte erantzukizun ikuspegitik ere bai: dauzkazun harremanak administrazioarekin, lehiakideekin, hornitzaileekin, bezeroekin, langileekin... eta esango nuke baietz, euskarak balio erantsia ematen diela edozein motatako erakundeei.

Kooperatibetatik hasi zineten, gero enpresa pribatuetara zabaldu zarete, eta industria sektoretik zerbitzuetara. Zelakoa izan da bilakaera?

Gu hasieratik gara kooperatiba, eta hazteko gure terreno natural horixe zen: kooperatibak. Hiru teknikari ginenez, hiru kooperatibatan hasi ginen, Arrasaten bertan. Hori 97ko urrian izan zen. Hurrengo udarako, Fagor taldean aurrera egin genezakeela ikusi genuen. Guretako mugarri garrantzitsua izan zen 98an Fagor talde osoarekin hitzarmena egitea, hor hasi ginelako kooperatiba gehienetan sartzen.

Kooperatibek asko lagundu digute zabaltzen, izan ere, eurek beharbada Bizkaian-edo beste lantegi bat bazuten, hara ere zabaltzen ginen; haren alboko beste enpresa batek ere bat egiten zuen... Horrela joan da, batez ere industriari dagokionez, nahiz eta tartean zerbitzuetako enpresa batzuk ere egon. Eta EMUN gorpuzten zihoan arabera, administrazioan eta beste enpresa batzuetan ere zabaltzeko beharra ikusi genuen.

Askotan, enpresetan euskara egunerokoan bai, baina gauza konplexuagoetarako erdarara jotzen dugu...

Lau ardatz daude: ezagutza; nahiz eta gero eta jende gehiagok dakien, hemen edozein kooperatiba handira joaten bazara, %55-60 ingurukoa da ezagutza. Beste ardatz bat motibazioarena da: askok, nahiz eta euskaraz jakin, ez du sentitzen euskaraz egiteko aparteko grinarik. Hirugarrena erabilera da. Baina gero laugarren bat dago: erakundetzea. Esandako dena erakunde baten martxan jarri ahal izateko liderrak behar dira; arau batzuk jarri behar dira, nahi batzuk, hriu ardatz horiek lantzeko aurrekontu batzuk... Oraindik ere, jende askok pentsatzen du gazteek egingo dutela, baina guk garbi ikusten dugu ez dutela egiten: egiten dutena da erakunde horretan dagoen kulturara egokitzea.

Jose Antonio Azpiazu | Historialaria

"Bainuontziak zertarako erabili ez zekiten arbasoek, letxugak landatzen zituzten han"

- Jose Antonio Azpiazuk arbasoen higiene eta barruko arropen gainean egin zuen berba
- Pake Leku erretiratuen elkartean, kultura astean, kontatu zituen hainbat bitxikeria

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Jose Antonio Azpiazu historialariak hitzaldi bitxia egin zuen Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkartearen kultura astean. Gure arbasoen barruko arroparen, higienearen eta bainatzeko moduen gainean berba egin zuen. Orain dela 200 bat urtetik gaurdaino horiek guztiak nola aldatu diren kontatu zuen. Hitzaldian egondako herritarrek ere euren pasadizoak kontatu zituzten.

Hitzaldi baterako gai bitxia aukeratu duzu.

Gizakiaren alde intimoaren alorreko alderdiak diren arren, herritarrak, batez ere, hirugarren adinekoak, identifikatu egiten dira kontu horiekin. Gure arbasoak lotsatu egiten ziren barruko arropaz edo higieneaz berba egiterakoan. Egun, normala da higienea eta bainua. Askotan, gehiegizkoa.

Bilakaera handia izan dute higieneak, bainuek eta barruko arropek?

Bai, izugarri aldatu dira. Gaurko gazteek uste dute orain dela 40-50 urteko egoera bera zela: komunak, dutxak, bainuontziak, kuleroak, galtzontziloak... Baina egoera oso bestelakoa zen.

Adibidez, gure arbasoek, umeak zirenean, barruko arropa gutxi erabiltzen zuten. Batzuk barruko arropa barik egoten ziren. Kontuan izan behar dugu duela 50 urte arropak etxean egiten zituztela: lihoarekin edo artilearekin. Baserrian erabiltzeko abarkak ere etxean egiten ziren, eta, zapatak erosten zituztenean, pare bat neurri handiagoak erosten zituzten, iraupen luzeagoa izateko.

Nolakoak ziren lehengo komunak?

Orain dela 200 urte, Donostian, *kapitalean*, kaka eta txiza egiteko erabiltzen ziren komunak oso bitxiak ziren. Donostiako suntsiketa gertatu zenean, neska eta emakume donostiarrak, soldaduengandik ihesi, komunetan sartzen ziren. Han ezkutatzen ziren, eta irteterakoan kakaz beteta egoten ziren. Zergatik? Bada, komuna biltegi bat zelako. Kaka egin eta betetzen zenean, hustu egin behar zen. Herritarrek hango kaka hartu eta baserrira, ongarri moduan, eramateko eskaera egiten zuten.

Baserrietako komunak oso bestelakoak ziren. Egurrezkoak ziren, eta kaka eta txiza zuzenean kortara bideratzen zen, ongarri moduan erabiltzeko hura ere.

Egun ezagutzen ditugun komun-ontziak heldu zirenean, ezustekoa izan zen. Are gehiago, komunerako papera heldu zenean. Ordura arte, egunkariarekin garbitzen zuten ipurdia. *El Elefante* izan zen komunerako ezagutu genuen lehen papera.

Jose Antonio Azpiazu, lihozko aldandora batekin, Goiena telebistako platoan. | MIREN ARREGI

Nola bainatzen ziren gure arbasoak?

Bainatu baino gehiago, ahal zuten eran garbitu egiten ziren. Egungo dutxak eta bainuontziak orain dela 50 urte hasi ziren erabiltzen. Horren aurretik, bestelako egoera zegoen. Ez zegoen dutxarik. Harraskan garbitzen zituzten oinak, besapeak, eta baita etxeko tresnak eta baserrietako gailuak ere. Dena garbitzen zuten leku berean.

> **"Duela 200 urteko Donostiako komunak deposituak ziren"**

> **"Barruko arropak erabiltzen lehenak aberatsak izan ziren"**

Bestalde, gure amonek ez zuten ilea garbitzen. Zorriak kentzeko orrazi estu bat erabiltzen zuten, eta kito, besterik ez.

Garai hartan, uste zuten ura erabiliz garbitzea arriskutsua zela: azalarendako, katarroak harrapatzeko... Higienea beste modu batera egiten zuten.

Bainu-ontziak zertarako balio zuen ez zekiten askok. Batzuek letxugak landatu zituzten bainu-ontzian, eta dutxako txorrotarekin ureztatzen zituzten. Ez zekiten garbitzeko gailuak zirenik.

Gura arbasoak arroparekin bainatzen ziren?

Bai. Biluzik geratzea anti-naturala zen. Lotsa handia ematen zien arropa gutxirekin ibiltzea. Hori horrela, arroparekin bainatzen ziren: kamisoi itxura zuen alkandora luze batekin.

Baina ez bakarrik bainatzeko orduan. Orain dela 100 urteko argazkietan ikus daiteke emakumeak nola janzten ziren: goitik behera estalita eta arropa beltzarekin. Egun, burkarekin ibiltzen diren emakumeen pare janzten ziren.

Helduak ez ziren bainatzen, baina umeekin nola jokatzen zuten?

Antzera. Noizean behin garbitu egiten zituzten. Jaioberriekin ez zituzten pixoihalak erabiltzen. Trapuak erabiltzen zituzten kakak eta txizak batzeko. Zikintzen zirenean, eskuz garbitzen zituzten. Pixoihalak bota egiten ditugu egun, baina orduan... Eta gauza bera, emakumeen hilerokoarekin. Hori gai tabua zen. Inork ez zuen horren gainean berbarik egiten. Dena den, hilerokoarendako trapuak erabiltzearena ez da horren ohitura zaharra. Orain dela 30 bat urtera arte erabiltzen ziren. Orduan hartu zuen indarra konpresak.

Noiz hasi ziren barruko arropak erabiltzen?

Egun erabiltzen ditugun kulero, galtzontzilo eta bularretakoak arropa berriak direla esan daiteke. Batez ere, bularretakoa. Dokumentuetan XVIII. mendean agertzen dira. Horren aurretik, praken azpitik praka luzeagoak ipintzen ziren. Barruko arropak luxuzko artikuluak ziren.

Orain dela 150-200 urteko kuleroak oso bitxiak ziren. Gerrian itxiak, eta aluaren parean irekiak. Txiza egiteko ez zuten kuleroa kentzen emakumeek. Belaunetaraino heltzen ziren bi tutu zituen, eta hortik egiten zuten txiza. Askotan zutik eta beti ere, kuleroa kendu barik. Gure amonek zutik egiten zuten txiza.

Oñatiko hitzaldiko entzule baten kontatu zigun, Afrikara soldadutzara joan zenean, hango soldaduek ez zutela barruko arroparik erabiltzen. Galtzontzilo barik ibiltzen ziren.

Barruko arropak erabiltzen lehenak aberatsak izan ziren. Barruko arropak erosteko dirua zutenak.

ZABALIK



ANDONI GOMEZ
http://goiena.net/iritzia/

Non dago muga?

Gaur egun, bizitzen ari garen garai teknologiko honetan, 24 orduak konektaturik bizi gaitezke wi-fi edo 3G-ri esker. Gero eta gailu, gadget edo tramankulu ezberdin gehiagok inguratzen gaituzte (smartphone, tablet, ultrabook...) eta bertan, App deituriko milaka programa erabil ditzakegu. Zeinek ez ditu ezagutzen Facebook edo Twitter sare sozialak? Zeinek ez du bidali WhatsApp bat edo *Angry Birds*-en partidatxo bat jolastu momenturen batean?

Eskertzen da edozein momentutan eta edozein lekutan gure eskuetan nahi dugun informazioa edukitzea, arazo batetik baino gehiagotatik atera baikaitzake.

Lan arloan, esaterako, izugarrizko abantailak ematen dituzte, denbora murriztuz, mugikortasuna erraztuz edota globalizatutako mundu honetan milaka kilometrotara dauden bi enpresaren edo bi pertsonaren arteko proiektuak ahalbideratuz.

"Beharrezkoa da momentu oro urrun dauden lagunen egoera jakitea?"

Baina beharrezkoa al da momentu oro *Real-Time*, urrun dauden lagunen egoera jakitea eta beraiekin gaudenean modan dagoen App-arekin trasteatzen aritzea?

Baliteke honek guztiak pertsonen zuzeneko harremanak murrizten aritzea, aldi berean, nolabaiteko menpekotasuna sortuz.

Adibidez, Estatu Batuetan, ohikoa da, eta aldi berean adierazgarria, taberna batean sartu eta lagun talde bat, mahai erdian guztien mugikorrak itzalita dituztelarik, trago bat hartzen ikustea. Era honetan, elkarrekin dauden bitartean, inor distrai ez dadin ziurtatzeko modu bat da.

Egia da erabiltzaileek dutela azkenengo hitza, beraiek erabakitzen baitute noiz, non eta nola erabili enpresek eskainitako baliabide ezberdinak. Hala ere, erreminta hauei probetxu handiena ateratzearen eta erabilera arduragabea egitearen arteko muga non dagoen jakitea da gure erronka.

USTEAK USTE

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL | zvelez@goiena.com

Eraginkor edo ez, hortxe koxka

Gauza asko izan daitezke eraginkor. Etxebizitza baten energia kontsumoez egin dezakegu berba, edota leihatila batean harrera egiten dizun funtzionarioaren lanaz, zein segurtasun enpresak ematen dizun zerbitzuaz. Azken horren harira, pasa den asteburuan etxe azpiko tabernako alarma ordu eta erdi luzez ibili zen jo eta jo, goizean goizetik. Denbora horretan ez zen bertako langilerik agertu, agian alarmakoek abisurik pasa ez zutelako; hala balitz, besteren bat begiratzen has daitezela! Gaitz erdi, ez zen lapurrik sartu! Eraginkorrak udaltzainak izan ziren: deitu, segituan etorri eta bost minutura isiltasuna itzuli zieten geure buruei. Eskerrik asko!

KALE INKESTA

Jarraitu dituzu AEBetako hauteskundeak?



DANEL MAZMELA
ARRASATE

"Normalean, ez ditut jarraitzen; azken finean, hemengoetan kontatzen du nire iritziak, ez hangoetan".

IÑAKI GURIDI
OÑATI

"Ez ditut batere jarraitu, goizean egunkarian irakurri dudana bakarrik dakit, Obamak irabazi duela".

ELENE ARRIOLA
ARRASATE

"Ez ditut jarraitu Estatu Batuetako hauteskundeak, dakidan bakarra da Obamak irabazi duela".

MAITE ZUBIZARRETA
OÑATI

"Ez dakit ezer Estatu Batuetako hauteskunde kanpainari buruz, ez ditut batere jarraitu, ez dakit nork irabazi duen ere".

HANDIK ETA HEMENDIK

Asperdura, errepikapena, sorpresarik eza

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Aspertu xamar naukate dagoeneko katalanek.

Tira, ez katalan gizabanako hezur-haragizkoek; bai, ordea, katalanek izate abstraktu gisa.

Katalanak behar ditugu gaur, derrigor ispilu, nahitaez itsuneska-mutil, ezinbestean gida izpirituzkoak.

Moda kontua da: orain artean, destainaz, goitik begiratu diegu, eta, orain, guk baino abiadura handixeago hartu dutela dirudienean, to eta no, katalan, besterik ez da existitzen munduan.

Ados, ikas dezagun haiengandik: ikas dezagun nola estali inoizko politika neoliberal gorrienak nazioaren banderarekin; ikas dezagun nola ekonomia bera den independentistak sortzeko makina eraginkorrena.

Orduan, galdetuko duzue arrazoi osoz, zergatik ekartzen dituzu katalanak zutabe honetara, hamaikagarrenez?

Errua oraingoan ETBk dauka: asteazken gauean albistegi berezi bat eman zuten, *El caso catalán*.

Mahairik gabeko mahai inguru batean, hainbat lagun bildu zituzten.

Besteak beste, Xavier Garcia Albiol Badalonako PPko alkate xenofoboa, Kataluniako ekonomian masterra duela dirudien Javier Ruiz kazetaria —*La noria*-ra ere gai horietan aditu gisa eramaten dute— eta Josean Izarra *El Mundo*-ren euskal edizioko zuzendaria —eta, bai, nik ere ez dakit zergatik—.

Emakumerik ez, nahiz aurretik banatutako prentsa-oharretan Espai Catalunya-ko lehendakari Cristina Lageren presentzia iragartzen zen.

Katalunia benetan dago independentzia bidean, edo su artifizialak baino ez dira?

Nola eraiki beharko litzateke prozesu aldeaniztun bat, Katalunia, Espainia eta Europaren artean?

Eman daiteke aldebakarreko prozesu bat, eta Kataluniak bakarrik alde egitea?

Katalunia eta Euskadi: prozesu paraleloak dira?

Galdera horien bueltan aritu ziren gonbidatuak, bata bestea zapaltzen, bakarrizketa etenik gabean, luze, luzeegi: bi ordu iraun zuen barrabaskeriak.

Lehen konstatazio bat: mahai ingurua, asteazkeneko baldintzetan, genero hilotza da telebistarentzat.

Asperdura, errepikapena, sorpresarik eza.

Eta bigarren konstatazio bat: izugarria da katalanak ze katalan azentuarekin mintzo diren espainolez.

Katalanak.

Okerrena da azaroaren 25ean jokatuko diren hauteskundeen kanpaina hasi besterik ez dela egin.

Ez dut uste AEBetako hauteskundeei egin zaien jarraipena errepikatuko dugunik.

Baina ez gara oso urruti ibiliko ere.

Mintzaturengo.

Addenda:

Urtzi Urkizu lankidearen bitartez jakin dut TV3k ez duela Kataluniako hauteskunde kanpainaren hasiera eman, langileek bart 23:30etik 01:00etara lan uztea egitea erabaki zutelako, telebista publikoaren alde.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Leire Kortabarria
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Negozioa baldin badaukazu, iragarki hau zuretako da

Asmatuko duzu!

goienagida“

Sarean | Mugikorretan | Tabletetan | Paperean

Google-n azkarrago topatuko zaituzte.

Google Maps bitartez topatuko zaituzte.

Zure negozioaren eta produktuen **irudiak**.

Zuzeneko deia egiteko aukera.

Geolokalizazioa.

'Nola joan' aukera.

Papereko edizioan zure negozioaren berri **20.700** etxetan.

goienagida“

2013

- **OÑATI**
- **BERGARA**
- **ANTZUOLA**
- **ELGETA**
- **ARRASATE**
- **ARETXABALETA**
- **ESKORIATZA**
- **LEINTZ GATZAGA**
- **ARAMAIO**

Gidan azaldu gura baduzu, garaiz zabiltza.
Deitu 943 25 05 05 telefonora.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Juan Joxe Egaña | Euskal Herritarrok alderdiko zinegotzia Oñatin (1999-2003)

- Euskal Herritarrok alderdiak lortu zituen zazpi zinegotzietako bat da Egaña
- Nekazaritza eta Hirigintza batzordeetan hartu zuen parte
- Gaur egun Garibai auzoko alkatea da eta harremanetan jarraitzen du Udalarekin

"Auzoen saneamendu lana ondo dago eginda Oñatin, eta alde horretatik pribilegiatuak gara"

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bi agintaldi egin zituen zinegotzi lanetan Juan Joxe Egañak Oñatiko Udalean. Lehenengo lau urteak Euskal Herritarrok alderdiaren barruan egin zituen eta bigarrena kanpoan bukatu zuen: "T-4ko atentatuaren ostean ilegalizatu egin gintuzten, eta, batzordeetara joaten ginen arren, kanpoan geunden".

Nola gogoratzen duzu Udalera sartu zinen eguna?

Joxe Maria Larrañagak zinegotzi izateari utzi behar ziola -eta, nekazaritza kontuetan aritzeko gonbidapenarekin sartu nintzen. Bestetik, Euskal Herritarrok indartsu sartu zen udal jardunera, zazpi zinegotzirekin; babesa genuen, eroso sartu ginen.

Nekazaritza batzordeetan hartzen zenuen zuk parte, beraz?

Bai. Gogoan dut saneamendu arloan lan handia egin genuela orduan. Aurreko Udala hasita zegoen lan horretan, eta guk jarraipena eman genion. Izan genituen tirabira batzuk ere, baina uste dut lan soziala izan zela hori; baserri guztiek kopuru bera ordaindu zuten.

Bestalde, Aloñako larreratzea arautu genuen Aldundiarekin batera, eta Aloabel, Aloñako Abereen Elkartea, ordukoa da.

Auzoen saneamendu arazoak konpondu zenituzten.

Erdiguneko auzoena bai, behintzat. Arantzazun, adibidez, orain ari dira horretan, eta Araotzen egin gabe dago, baina beste auzo gehienetakoa bukatu genuen.

Ni neu pozik nago egin genuen lanaz eta lanaren moduagatik. Sanemenduari dagokionez, herri pribilegiatua da Oñati.

Zela konpontzen zinen beste alderdietako kideekin?

Ondo. Osoko bilkuretan gai politikoak aztertzen zirenean, ika -mikak sortzen ziren, bai, baina batzordeetan ez genuen gai politikorik lantzen, herrira begirako proiektuei buruz eztabaidatzen genuen, eta hor ondo moldatzen ginen denok.

Nekazaritzan ez ezik, Hirigintzako batzordeko kide ere izan zinen.

Bai, bi batzorde horietara joaten nintzen ni. Hirigintzan, gogoan dut plan estrategiko berria landu genuela garai hartan: industriague berriak definitu, hiri antolamendua diseinatu... Horrez gain, tranbiaren proiektua ezagutu genuen eta bidegorriaren trazatua lantzen sasoi hartan hasi ginen.

Juan Joxe Egaña, Nekazarien Elkartean, joan den eguenean. | O.E.

Orduan hartutako ze erabaki uste duzu ez zela egokia izan?

Orduan lana zegoen Oñatin, eta herriko enpresek, lantegiek, esaten zuten lur gehiago behar zutela euren negozioak hazteko. Etxebizitzak eraiki behar zirela ere erabaki zen. Eta orain zer? Hamar urte geroago industriaguneak erdi-hutsik daude eta etxebizitza asko bete barik. Egoera aldatu egin da, baina pena ematen dit momentuko egoerari aurre egiteko hartutako erabakiak orain balekoak ez izateak.

Eta ondo hartutako erabakirik?

Auzoen saneamendua, duda barik.

Ze balorazio egiten duzu Udalean egon zinen sasoiaz?

Positiboa. Lagun batek eskatuta sartu nintzen ni, baina ez zait damutu. Oroitzapen onak ditut. Gainera, uste dut denok parte hartu beharko genukeela lan horretan, lehenago edo geroago. Modu horretara, beste ikuspegi bat izango genuke guztiok. Askotan, errazegi egiten dugu berba, eta Udal barruan gauzek ze martxa hartzen duten eta nola erabakitzen diren jakitea aberasgarria da edozeinendako.

Gaur egun ze harreman duzu politikarekin eta udal jardunarekin?

Gaur egun, Garibaiko auzo-alkatea naiz, eta, alde horretatik, harremana dut Udalarekin, baina, gainerakoan, beste dozein herritarrek moduan jarraitzen dut politika.

Zinegotzi zela, tranbiaren proiektuaren erakusketa atzean duela. | KONTZEJUPETIK

"Aloñako larreratzea arautu genuen Aldundiarekin, eta Aloabel sortu zen"

"Debagoieneko tranbiaren proiektua ere ezagutu genuen"

HERRIAK

ARRASATE

Arizmendiarretaren kanonizazioa gertu da hurrengo urratserako, kausa onartuz gero

Postulazio Batzordea Vatikanoan izan da apaizaren obra sustatzeko helburuarekin

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Amaitzear da, aste gutxi batzuk barru, Jose Maria Arizmendiarreta kanonizatzeko postulazio fasearen lehen urratsa. 2009an eroan zuten Gipuzkoako Gotzainaren bermearekin Arizmendiarrietaren kausa sustengatzen duen dokumentazioa Erromara eta han orain Postulazio Batzordeak defentsa aurkezten dihardu. Paralelismo juridiko bat egitearren, elizako fiskal batek Arizmendiarrietaren bertuteen defentsa egingo du Elizaren aurrean, epaiketa bat izango balitz bezala, haren kasua aztertzeko onar dezaten. Hala, Arizmendiarrietaren figura azaldu eta sustatzen ibili da batzorde bat azken asteetan Vatikanoan hitzaldi sorta baten bitartez Elizaren doktrina soziala zabaltzeko kooperatibismoaren sustatzaileak egindako lana oinarri hartuta. Postulazio Batzorde horren kide moduan Vatikanoan izan dira Donostiako Elizbarrutitik Carlos Garcia de Andoin apaiza eta Jose Luis Jimenez Brea eta Juan Manuel Sinde Mondragon Taldeko gidaritza taldeko kide ohi izandakoak. Espainiako Gotzain-Konferentziako Ricardo Blazquez eta José Ignacio Munilla Gotzainek ere hartu dute parte postulazioan. Helburua izan da kanonizazio prozesuari bultzada eman eta Jose Maria Arizmendiarrietaren obrak Elizaren doktrinarekin duen lotura azaltzea. Esperientzia kooperatiboa Elizaren doktrina sozialaren barruan kokatutako lana dela nabarmendu da Vaticanon. Bizitza "Jainkoaren zerbitzura" eman zuela esan da



2009an Donostiako Artzain Onean egin zen elizkizunaren irudia. | JON BEREZIBAR

Orain arteko urratsak

1999
Alfonso Gorroñogotia, Jose Maria Ormaetxea eta Jesus Larrañaga prozesuari ekiten diote Elizako adituei kontsultatu eta testigantza eta dokumentazio faseari ekinez.

2005
Elizbarrutiko fasea deritzona. Dokumentazioa jasotzen da. 3.000 orritik gora dituen 38 testigantza batzen dituen agiria osatzen da.

2009
Erromara bidaltzeko txostenak Gotzainaren bermea jaso eta Vatikanora bidaltzen da. Honekin, Elizbarrutiko fasea amaitzen da.

2012
Dokumentazioa Erroman delarik Postulazio Batzordeak kausa defendatu du. 'Positio' delako dokumentuarekin, aztergaien zerrendan sartuko litzateke eskaera.

Prozesu oso luzea

Hainbat hamarkada iraun dezake hemendik aurrerakoak, baldin eta Vatikanoak Arizmendiarrietaren kausa aztergaien zerrendan onartu eta izendatua izateko baldintzak betetzen dira. Eskaria bera 2009an egin zen eta urte hartan beste 400 aurkeztu ziren Arizmendiarrietarenarekin batera. Beharrezko dokumentazioa Erroman aurkeztuta, kasua aztertzeko moduko nahikoa motibo dagoela erabakiko du aste gutxitan Elizak.

1999 urtean Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Maria Ormaetxeak lanari ekin ziotenetik luzea izan da bidea. Kooperatiben lehen sustatzaileok lehenik Elizako adituekin kontsultatu eta 2005ean Elizbarruti barruko prozesua egin zuten 2009ra arte. Apaizaren bizitza, lan, doktrina eta fedearen berri ematen zuten testigantzak eta dokumentazioa jaso zituzten. 3.000 orritik gorako txostena idatzi zen 38 testigantzarekin. Garaiko Gipuzkoako Gotzainak bermea eman zien 2009ko maiatzean. Dumentuak jaso eta moja batek Erromara eroan zituen agiriak eta orain, 2012an berme juridikoa jaso behar dute dokumentuok, prozesuarekin jarraitzeko. Santuen Gairako Kongregazioa delakoak du hitza eta prozesuaren gidaritza, hortaz. Arizmendiarrietaren kasua, baina, berezia da, inongo komentuko fraide ez zelako eta ez zeukan erlijio mailako kargu gorenik. Haren kausaren sustatzaileek, ordea, haren lanean oinarri sendoak ikusten dituzte santu izateko bertuteak hiru baitira – fedea, esperantza eta karitatea – eta apaizaren doktrina soziala horietan sustengatzen zela azaldu dute behin eta berriz Gorroñogoitiak eta Ormaetxeak. Hain zuzen, apaizaren heriotzaren urteurrenaren harira antolatutako hitzaldi sortan, 2001 amaieran eta urte honen hasieran egindakoetan, horixe nabarmendu da. Hitzaldiak eta ikus-entzunezkoak eskaini dira eta saio guztietan nabarmendu da haren magistergoak eskualdean emandako fruitua eta garai hartako egoera eta egungoa konparatuz, hausnartu dute zein puntutan aurkitzen den esperientzia kooperatiboa.

Elizaren doktrina sozialaren barruan kokatu dute kooperatibismoa

Prozesua fiskal baten defentsa kasua bezalakoa da, paralelismo bat egitearren

Santu izendatu arteko bide luzea

Prozesuak Elizaren bermea jaso eta bide guztiak jarraitu behar ditu eta soilik azkartuko litzateke Arizmendiarrietari miraririk aitortuko balitzaio. Izan ere, kanonizazio prozesuan hainbat urrats daude eta, lehenik beneragarri den esan behar du Elizak, beato ala dohatsu izendatuko lukete gero, beatifikazioa litzatekeena, eta mirariak baleude eta prozesu luzeak aurrera eginez gero, kanonizatua izango litzateke eta santu bilakatu. Momentu honetan haren izendapena proposatzen dutenek Vatikanoan haren kausa defendatzen dihardute. Fiskal batek epailearen aurrean egingo lukeen antzera.

Bi mutiko ziklismoko erretratuak ikusten. | MIREIA BIKUÑA

Ama eta alaba, bitxiak ikusten. | MIREIA BIKUÑA

Neska-mutikoak Nagore Intxaustirekin ukenduak egiten ikasten. | MIREIA BIKUÑA

LEINTZ GATZAGA

San Milixan azoka: ukenduak egiten ikasi, taloa jan eta bitxiak erosi

Hori guztia egin zuten hainbat herritarrek Leintz Gatzagako pilotaleku inguruan egondako postuetan

MIREIA BIKUÑA | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako San Milixan azokak 20 urte bete zituen atzo, eta beste behin herritarrek ondo erantzun zuten. Pilotaleku barruan eta kanpoan askotariko artisauak elkartu ziren, eta bisitariek erosteko, ikusteko eta ikasteko aukera izan zuten. Pilotalekuaren kanpoaldean, sagardoaren prozesua gertutik ezagutzeko aukera zegoen: sagarrak pilatu, txikitu, prentsatu eta sagar zukua atera. Horien alboan, Dorletako Txirrindulari Lagun Elkarteko lagunek erakusketa bitxia zuten: *BH* bizikleta zahar batetik hasi eta Dorletako santutegian dauden elastikoetara, tartean Bahamontesen elastikoa.

Barrualdean, ume asko batu zen Nagore Intxaustik ukenduak nola egiten zituen ikusteko eta ikasteko.

Taloaren usainean

Erosteko gogoarekin joandako bisitariek ere bazuten non aukeratu: paperezko bitxiak, eskuz margotutako kaxak, zilarrezko eraztun eta lepokoak, eskuz margortutako arropak, sukalderako egurrezko tresnak, margotutako harriak eta umeendako puzzleak, besteak beste.

Artisauen lanak ikusita, herritarrak taloa eta txorizoaren usainaren inguruan elkartu ziren. Gatzagako Sorginak fin zebiltzan lanean tabernan. Aukeran taloa txorizo edo hirugiharrarekin, edo barruak berotzeko salda goxoa.

ARAMAIO

San Martin egunaren aitzakian, euripean bada ere, jai giro polita

A.ARANBURUZABALA | ARAMAIO

San Martin, herriko zaindariaren egunaren aitzakian, jai giroa izan da Aramaion. Antolatutakoen artean: trikitilarien kalejira eta pintxo-dastatzea, ipuin kontaketa, pilota txapelketa eta Txirritola elkartearen Txirripartxis.

Trikitixa Eskolaren sariak

Egubakoitzean motz geratu ziren, kalejiraren ostean, Trikitixa Eskolakoek prestatutako zortzi kilo txorixo eta beste zortzi kilo buzkantzarekin egindako pintxoak. Batutako diruarekin, kuota ez igotzea zuten helburu, besteak beste, kide berriak erakartzeko; horregatik, bada, pozik eta eskertuta daude, herritarrengandik jasotako laguntzagatik.

Zozketa ere egin zuten. Honakoak saritutako zenbakiak: Hondarribiko nekazal turismora joango dira 0505. zenbakidunak; urdaiazpikoa eskuratuko du, berriz, 0291. zenbakia duenak; eta 1320. txartelaren jabearentzako izango da, ostera, herriko Ibabe baserriko gazta, hain zuzen ere, aurtengo Gernikako Azokan laugarren saria lortu zuenaren "anaia".

Aramaioko trikitilari eta panderojoleak elkarterako dirua batzeko txerriki pintxoak saldu zituzten. | JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA

JOSETXO ARANTZABAL

Monzon gogora ekarriz

Telesforo Monzon omenduz elkartu ziren zapatuan, Bergarako Idazle Eskolaren 10. urtemuga dela eta, eskolako kideak. Monzonen lanak irakurri zituzten lehenengo, eta ondoren, herrian barrena ibilaldia egin zuten Jerardo Elortza Oñatiko historialari eta euskal literatura adituaren gidaritzapean. Gainera, hainbat geraldi egin zituzten euskal idazleen eta batez ere Monzonen testuak irakurtzeko eta abesteko.

ELGETA

Hondarribia taldeko arraunlariak izan ziren zapatuan; gastronomiaren txanda izan zen atzo

Aspertzeko unerik ez da izan asteburuan: Arraunlarien bisitaz gain, pintxo lehiaketa ere egin zuten

MIREN ARREGI | ELGETA

Asteburu betea izan da oraingoa Elgetan. Zapatu zein domeka, erakusketa, lehiaketa, dantza erakustaldi eta bestelakoak izan dira. Zapatu goizean, urtero moduan, Hondarribia Arraun taldekoak etorri ziren egun pasa Elgetara. 2005ean, Hondarribiak Kontxako bandera irabazi zuenean etorri ziren lehenengoz Elgetako koadrila batek gonbidatuta eta ordutik urteroko hitzordu bilakatu da. "Egun ederra igarotzen dugu Elgetan. Urtero gonbidatzen gaituzte eta guk asko eskertzen diegu", zioen Mikel Orbañanos entrenatzaileak. Arraunlariek bertan bazkaldu zuten.

Gastronomia ere bai

Bestalde, domekan pintxo lehiaketa egin zuten Elgetan. Herriko bost tabernak izan ziren parte -hartzaileak eta bakoitzak bi pintxo aurkeztu zituen. Herriko hiru lagunez osatutako epaimahaiak erabaki zuen pintxorik onena Hotelean egin zutela. Gaztaz, sagar-gozokiz eta jerez saltsaz egindakoa zen hori.

Pintxo lehiaketa honek badu berritasunik aurten, izan ere, datozen bi domeketan ere, pintxo bana egin beharko dute bost tabernek. Horiek dastatzeko aukera tabernetan bertan egongo da eta bost horietatik onena herritarrek aukeratuko dute boto bidez.

Bestetik, lehiaketaz gain, perretxiko erakusketa ere egin zuten atzo Elgetan.

Hondarribia Arraun elkarteko arraunlariak eta zuzendaritzako kideak Elgetan. | JOSETXO ARANTZABAL

Hoteleko nagusiak eta Basauri pintxo irabazlearekin. | O.E.

Promociones
Erregetxo Plaza
Bergara

Bergarako hirigune historikoan
63 etxebizitza, libre, tasatu,
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:
ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18
LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

- KOKAPEN EZINHOBEA
- 1,2,3,4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK
- LEHENENGO MAILAKO MATERIALAK
- SUKALDE EKIPATUAK, ARMAIRUAK

Dagoeneko **zintzilikatu dugu informazio guztia** gure webgunean

Sartu eta ikusi

www.promocioneserregetxoplaza.com





Amets Beltran de Gebara eta Maite Barreña, Emakume Txokoaren atarian, aurtengo egitarauarekin. | JOKIN BEREZIARTUA

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna ekintzaz lepo dator

- Egunerokotasunean ditugun jarrera sexistei erreparatu gura diete bereziki
- Nobedade nagusia izango da sexismoaren aurkako komiki tira lehiaketa

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna ospatuko da mundu osoan. Arrasaten hainbat ekitaldi antolatu izan dira urtero Emakume Txokoaren, Udalaren eta Arrasateko genero indarkeriaren aurkako plataformaren eskutik. Aurten ere egitarau zabala eta interesgarria antolatu dute indarkeria sexistak dituen "hamaika aurpegien" gaia azaleratzeko.

Antolatzaileek, aurten, biolentzia "mota sotilagoei" erreparatu gura diete bereziki: "Detektatzeko konplikatuagoak dira. Egunerokotasunean denok ditugun jarrerei erreparatzea da gure asmoa", adierazi du Amets Beltran de Gebarak, Emakume Txokoko dinamizatzaileak. Izan ere, jarrera horiek emakumeen artean ere zabalduta daudela erakusteko hainbat adibide eman digute Emakume Txokoan. Batzarrak egiteko orduan –batzarrak erabakiak hartzeko uneak diren heinean–, adibidez, emakumearen txandak ez errespetatzea, emakumeak berak determinazio barik hitz egiteko duen joera –ahots-tonu baxuan, hitzezkoa ez den komunikazio gabe, sostengu beharra erakusteko joera...– edota jendaurrean berba egiteko beldurra bera. Azaroaren 25aren bueltan antolatu dituzten ekintzetan halako adibideak eta beste hainbat gai jorratuko dituzte.

Komikiak, abenduaren 7ra arte

Aurten nobedade aipagarriena da lehenengoz antolatuko den sexismoaren aurkako komiki tiren lehiaketa. "Gure gizartean bizirik jarraitzen duten estereotipo sexistei buruz kontzientzia hartzeko" antolatu dute.

Zergatik komiki lehiaketa? Euskarri ezberdin bat pizgarri izan dadin jarrera diskriminatzaileen eta sexisten aurka: "Modu grafikoan bistaratzea matxismoaren aurpegiak eta moduak, eta, era berean, barregarri uztea ezberdintasun egoerak komiki tiretan", diote antolatzaileek.

Lanak entregatzeko azken eguna abenduaren 7a izango da; BAZen, 12:00ak arte, eskuan edo posta bidez. Modalitate bakarra egongo da eta hor edozein pertsonak har dezake parte. Parte hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkez ditzake. Euskaraz, gaztelaraz edo obra mutuak aurkez daitezke eta jatorrizkoa aleak izan behar dira. Lanak nola entregatu behar diren jakiteko edo bestelako argibideetarako deitu Emakume Txokora: 943 79 41 39.

Sarituen artean lehen sariak eta Euskarazko Sariak 400 euro jasoko ditu bakoitzak. Horrez gain, 150 euroko bi accesit ere banatuko dituzte. Kalitate nahikorik ezean lanak sari gabe utz dezake Udalak.

AZAROAK 25, EGITARAU OSOA

ZINEMA ZIKLOA: 'BIOLENTZIA SEXISTAK'

***Piedras*:** azaroaren 12an, Kulturateko areto nagusian (19:00).

***Mujeres de el Cairo*:** azaroaren 19an, Kulturateko areto nagusian (19:00). Jatorrizko bertsioa, gaztelerazko azpitituluekin.

***Antigua vida mía*:** azaroaren 27an, Amaia antzokian (20:30).

TAILERRA

Indarkeria sexistari aurre egiteko estrategiak: azaroaren 30ean (16:00-21:00) eta abenduaren 1ean (10:00-14:00). Euskaraz da, izena emateko deitu Emakume Txokora: 943 79 41 39.

MURAL-MARGOTZEA

Indarkeria sexista salatzeko murala: Azaroaren 25ean (17:00). Parte hartzeko deitu Emakume Txokora: 943 79 41 39.

KONTZENTRAZIOA

Indarkeria sexista salatzeko elkarretaratzea: azaroaren 25ean, herriko plazan (19:00).

KOMIKI TAILERRA

Sexismoaren aurkako komiki tiren I. lehiaketa: lanak entregatu behar dira abenduaren 7a baino lehen, BAZen (12:00ak arte).

ESANAK

"Egunerokoan denok ditugun jarrerei errepara gura diegu"

AMETS B. DE GEBARA | EMAKUME TXOKOA

DBHko ikasleen gurasoei zuzendutako hitzaldia Prebentzio Zerbitzuaren eskutik

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Udaleko Prebentzio Zerbitzuak, Arizmendi Ikastolarekin eta Arrasate Institutuarekin elkarlanean, *Gatazken Prebentzioa eta ebazpena: Eskola erasoa* hitzaldia antolatu du, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoei zuzenduta.

Hitzaldiaren helburua da gurasoek seme-alabei gatazka egoeretan mezu egokiak helarazteko estrategiak eskaintzea. Azaroaren 26an izango da, 18:00etan, Kulturateko Loramendi gelan, hirugarren solairuan.

Izena emateko, hilaren 16a

Etxadi unibertsitate eta zentroko aditu batek emango du hitzaldia; bertaratzeko, aurrez eman behar da izena: azaroaren 16a baino lehen BAZera (943 25 20 00), Gizarte Zerbitzuetara deituta (943 25 20 07) edota *prebentzio@arrasate-mondragon.net* helbidera idatzita.

Azoka biziberritzeko ekimenaren erronka berriei aurre egiteko bilera irekia bihar udaletxean (18:30)

Gureztatu azoka biziberritzeko ekimena gertu dago ikasturte eta erronka berriei aurre egiteko: "Datozen hilabeteotan ildo eta proposamen ezberdinen inguruko lanketan sakondu gurako genuke, orain arte egin izan dugun moduan, herritar eta eragileetako ordezkariekin batera". Herritarrekin bilera bihar egingo dute, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (18:30). Herrigintzaren garrantzia azpimarratu dute: "Arrasateko azoka biziberrituko badugu, elkarlanean eta herrigintzatik egingo dugu".

Roman Martinez | Besaide mendizale elkarteko presidentea

"Etorriko direnei laguntzeko gertu egongo gara, etorkizuna bermatzeko"

J.B. | ARRASATE

Bi hilabete eskas geratzen zaizkio Roman Martinezi Besaide mendizale elkarteko presidente moduan. Zuzendaritza batzordeak lau urte beteko ditu urte amaieran eta jende berria behar dute hurrengo batzar orokorrerako batzorde berria eratua egon dadin. Egun 2.000 bazkide inguru ditu elkarteak eta horietatik erdiak federatuak dira.

Nola aurreikusi duzue batzorde berria eratzeko prozesua?

Guk lau urte osatu ditugu eta teorikoki beste batzorde bat jarri beharko litzateke martxan. Deialdi bat egin dugu gutun bidez borondatea eta konpromisoa duenak elkartera etorri eta dinamika horretan sar dadin. Hori bai, ez dugu batzordea errotik aldatuko, egun boluntariotza ez dago -eta unerik gozoenean. Gura duguna da zuzendaritza taldea poliki-poliki berritzen joatea.


Roman Martinez. | ARTXIBOA

Argi dago egungo taldea ezin dela betirako egon eta jende berria sartu behar dela. Bada, prozesu hori ahalik eta erosoena izan dadin, planteatu duguna da trantsiziorako epe bat, aurrekoak eta berriak nahastuz.

2.000 bazkide inguru ditu elkarteak eta duela lau urte krisi latza izan zenuten taldea berritzeko...

Bai. Ordurako, aurreko zuzendaritzak bi legealdi egin zituen eta ultimatuma aurkeztu zuten esanez ez bazen inor aurkezten elkarteak funtzionatzeari utziko ziola. Orduan, alarma egoerari aurre egiteko hiru edo lau lagun elkartu ginen eta lan apur batekin beste hiru edo lau erakarri genituen. Legealdi honetan zortzi lagun hasi ginen, baina hiru bidean geratu ziren eta beste batek utzi egin gura du.

Haize berrien premia gorria, beraz.

Batez ere, elkartearen etorkizuna bermatzeko. Edozein elkartek ezinbestekoa du berritzea, ideia berriak, konplizitate berriak... Eta noski, horretarako konpromiso minimo bat behar da. Gu dagoeneko aurrera goaz adinean, familia bat daukagu eta ez dugu konprometitzeko denbora larregi. Hori bai, etorriko direnei edozertan laguntzeko gertu egongo gara; ezin dugu 2.000 laguneko elkarte bat bertan behera utzi, inondik inora. Oraindik zuzendaritza batzordean gaudenok laguntzeko asmoz egongo gara bermatzeko elkarteak beste lau, zortzi, 12, 16 edo 20 urteko bizi iraupena izango duela.

Historiaurretik hasita, iraganaz jabetzeko hitzaldi sorta ederra

Alvaro Arrizabalagak hasiko du bihar 'Arrasateko iragana astintzen' zikloa

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasate Zientzia elkarteak Udalaren babesarekin antolatutako *Arrasateko iragana astintzen* hitzaldi zikloa bihar hasiko da Alvaro Arrizabalaga arkeologo ezagunaren eskutik. Ekimenaren lehen helburua gure herriko ondare historikoa ezagutaraztea da: "Arrasateko ondare historikoa oso azpimarragarria da eta, kasu askotan herritarren artean ez da oso ezaguna. Guk ezagutza hori sustatu nahi dugu, batez ere arrasatearrak herriko historiaurre aberatsaren eta altzairuaren garrantziaz jabetu daitezen", diote antolatzaileek. Era berean, herritara astronomiara hurbildu gura dute: "Gutako edozeinek begiratu du zerura, espazio amaigabe eta misteriotsua. Modu erraz batean herritarrak zeruaren eta astronomiaren sekretuetara gerturatu nahi ditu, inguruan ditugun adibideak ezagutuz. Gainera, astronomiak Arrasateko eta Euskal Herriko artean izandako eragina azalduko da".

Goi mailako hizlariak

Azkenik, historiaren transmisioa aztertuko dute: "Herritar guztiek transmiti dezakete historia, istorioak, kondairak, ezagutza etnografikoak... Horrek belaunaldiz belaunaldi herri nortasuna sendotzen duela uste dugu. Hitzaldi hauei esker, ahaztuta egon den historialari bat, Miguel de Madinabeitia, nor zen azalduko da". Antolatzaileek hizlarien maila goraipatu dute: "Elkarteko kide edo ohorezko kideak dira, eta eskerrak eman nahi dizkiegu euren jakituria partekatzeagatik".

Arrizabalaga, Leze Txiki gizarteratzeko hitzarmena sinatu zen egunean. | GOIENA

HITZALDI ZIKLOA

AZAROAK 13

19:00 *Baita azken tximinoa ere... Arrasateko historiaurrea*. Hizlaria: Alvaro Arrizabalaga.

AZAROAK 20

19:00 *El acero en Mondragón y las espadas de Toledo*. Hizlaria: Genaro Rosado.

ABENDUAK 4

19:00 *El cielo desde Mondragón*. Hizlaria: Anton del Campo.

ABENDUAK 11

19:00 *Miguel de Madinabetitia*. Hizlaria: Jose Mari Velez de Mendizabal.

Oharra: Saio guztiak Kulturaten izango dira

Arrasaten jantoki soziala sortzeko proposamena egingo du PSE-EEk

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Arrasateko alderdi sozialistak prentsaurrekoa egin zuen egubakoitz eguerdian. Arrasaten ahalik eta lasterren jantoki sozial bat sortzea aldarrikatu zuen, baliabide gutxiko herritarrei laguntzeko asmoz. Datozen asteetan Gizarte Ongizate Saileko batzordean aurkeztuko dutela jakinarazi zuten prentsaurrekoan alderdiko ordezkariek.

Herritarrei laguntzeko xedea

"Arrasateko herritar askoren artean behar hau existitzen dela ikusi dugulako egingo dugu proposamena". Modu horretan azaldu zuen Aritz Arrieta alderdiko bozeramaileak jantoki sozialaren ideia. "Gipuzkoako beste herri batzuetan ere badaude, eta uste dugu Arrasateko Udala ez litzatekeela atzean geratu behar". Arrietak gaineratu zuen dituzten datuen arabera 80-90 herritarrek balia lezaketela jantokia: "Ahalegin berezia egin beharko dugu bai pertsonalki eta baita ekonomikoki ere, baina merezi izango du".

Alderdi sozialistak Arrasateko Udaleko Gizarte Ongizate Saileko batzordean aurkeztuko du ideia, eta prest agertu da proiektua aurrera eramaten laguntzeko. "Txarrenean, aurrekontutik premiazko partida bat eskatuko dugu egitasmoa egia bilakatzen laguntzeko".

Alderdi Sozialistaren egoitzan egin zuten prentsaurrekoa | Z.V.D.M.

OHARRAK

1959AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 24an elkartuko dira. 11:00etan hitzaldia izango dute Alkartun: *1959tik 1969ra*. 14:00etan talde argazkia aterako dute Herriko plazan. Bazkaria Aldape jatetxean egingo dute (14:30) eta 16:30etik 19:30era dantzaldia. Izena emateko 55 euro sartu behar dira 3035 0202 70 2020039448 kontu korronte zenbakian, hilaren 17a baino lehen.

1976AN JAIOTAKOAK

Abenduaren 1ean elkartuko dira. 40 euro sartu behar dira 3035 0001 50 0010101654 kontu korrontean, hilaren 26a baino lehen.

1985EAN JAIOTAKOAK

Azaroaren 17an elkartuko dira. Izena emateko 40 euro sartu behar dira 3035 002392 0230082470 kontu zenbakian, hilaren 12a baino lehen.

'Gigantes y cabezudos' zarzuelaren estreinaldia da zapatuan: sarrerak daude oraindik lau saioetarako

Izaskun Murgia elkarte lirikoaren eskutik, zapatuan estreinatuko da *Gigantes y cabezudos* zarzuela Amaia antzokian (19:30). Hilaren 17ko estreinaldirako 50 bat sarrera geratzen dira eta hilaren 18ko saiorako, berriz, 70 sarrera inguru. Datorren aste bukaeran, ordea, hilaren 23ko emanaldirako 30 sarrera eskas geratzen dira eta azken saiorako, hilaren 24an, 70 bat sarrera. Beraz, sarrera erosi gura duenak oraindik badu aukera: *www.kutxasarrerak.net* webgunean eskura daitezke.

'Berrialaguna' kanpainaren aldeko tonbola jarriko dute zapatuko baserritarren azokan

Debagoieneko euskara elkarteak eta euskalgintza erakundeak *Berrialaguna* kanpainaren aldeko ekintzak antolatzen dabiltza. Aste honetan komunikatu bateratu bat aterako dute, eta, Arrasateri dagokionez, hileko hirugarren zapatuan egiten den ohiko baserritarren azokan tonbola bat jarriko dutela iragarri dute. Seber Altube plazan egongo da, 09:00etatik 14:00etara. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, tonbola hori aurrera eramateko Ibai Arteko dendari eta ostalarien laguntza jaso dute.

Max Gamuzaren rocka eta garagea eguen honetan

J.B. | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan Max Gamuza izeneko taldea izango dugu gonbidatu asteon. Talde hasiberria da itxuraz eta Asturiako *Busta*-k sortutako kantuak dira, garage, rock-and-roll, soinu beltzak eta rock *canalla* batzen dituena, eta Max Gamuza izenpean plazaratu nahi izan ditu. Horretarako, Euskal Herriko hainbat musikari-azeri taldean batu –besteak beste, Joseba Irazoki, Joseba Baleztena eta *Guantxe*–, hammond, farfisa eta guzti, eta *Los buenos momentos están aquí* izeneko diskoa Munster Records diskoetxearekin kaleratu dute, Devil Dogs taldeko Mike Maricondarekin grabatu ostean.

Lehen geldiunea, gurean

Diskoa aurkezteko bira zabala prestatu dute eta lehenengo geldiunea Arrasaten izango da. Eguenean gaztetxean, 22:00etan, bost euroren truke.

Labetik irtetear da Never Surrender-en disko berria

Mikel Arriaran gitarra jolea eta Haritz Harreguy, Usurbilgo estudioan. | NEVER SURRENDER

J.B. | ARRASATE

Bide zuzenetik oker. Horixe izango da Never Surrender taldearen disko berriaren izena. Urri erdialdean sartu ziren Usurbilgo Higain estudioan, Haritz Harreguyren gidaritzapean grabatzeko. Hirugarren lan luzea izango denaren nahasketak bukatu berri dituzte.

Durangoko Azokan salgai

Taldeak aurreratu duenez, azaro amaierarako edo abenduko lehen asterako kalean izatea espero dute; Durangoko Azokan ziur egongo dela salgai. Hamar abesti ditu, guztiak euskaraz: "Aurreko lanaren garapena dela". Sorkuntzan aurrera doaz, beti ere Never Surrender-ek dituen berezitasunei eutsiz. Geldialdi luze baten ondoren, hilabete eskas barru izango ditugu bueltan.

Ricar Montero | Coach & Coach

"Gurasoak hezi beharko genituzke gertaera triste batzuk ez errepikatzeko"

'Formazioa harmailetan' izeneko berbaldiak arrakasta izan zuen Bergaran

XABIER URTZELAI | BERGARA

Coach&Coach da Ricar Monterok eta Luis Comendadorrek eskuartean duten proiektua. Kirola barrutik bizi duten bi donostiar hauek Bergaran izan ziren eguenean, Bergara kirol elkarteak eta Gipuzkoako saskibaloi federazioan antolatutako *formazioa harmailetan* izeneko berbaldia ematen. Arrakasta izan zuen deialdiak, eta Migel Altunako aretoa gutxigatik ez zen goraino bete.

Ricar Montero. | RIICAR MONTERO

Zer moduz Bergaran?

Oso ondo, oso giro jatorrean egon ginen, eta bikain tratatu gintuzten. Jende asko etorri zen berbaldira, guk, egia esateko, 20 lagun inguru espero genituen eta sorpresa ere hartu genuen. Gainera, Bergara saskibaloi taldekoak lan azpimarragarria egiten dabiltza.

***Formazioa harmailetan* zen gaia. Horren falta dugu?**

Nik futbola ezagutzen dut gertuago [Intxaurrondo elkarteko zuzendaria da] eta Luisek, berriz, saskibaloia. Eta, esango nuke futbolean hobera beharrean txarrera goazela. Batzarrean komentatu zen, baita ere, saskibaloian askoz ere errespetu handiagoa dagoela, ez direla futbolean ikusten direnak ikusten.

Eta zelan konpondu arazo hori? harmailetan egoten diren gertaera tamalgarriak saihestea, alegia.

Guk baditugu ideia batzuk, baina tresnak falta zaizkigu. Ezinbestekoa da gurasoak heztea, izan ere, ikustekoa izaten da kirol jarduera askotan guraso batzuk zelan estutzen dituzten euren seme-alabak. Alde horretatik, berbaldian bideo bat erakutsi genuen non aita batek denetik esaten dion bere semeari. Horrek eragin zuzena izango du haurrarengan, baina ez bakarrik kirol jardueran, baita bizitzako gainontzeko arloetan ere.

Kategoria nagusietan txarto dago, baina maila txikietan gurasoak burua galduta ikustea, ala elkarri joka...

Gertaera horiek lotsagarriak dira, eta ikusi nahi ez baditugu ere halakoak inguruan gertatzen dira. Esandako moduan, gazte mailatik aurrera gertatzen badira txarto daude, baina hori ikusten duten jokalariak dagoeneko nahiko helduak dira. Baina, halako gertaera bat infantil mailako gazte batek ikusten badu, bere gurasoak iskanbila sortzen, epaileari sekulakoak esaten... pentsatuko du hori dela normalena, eta bere heziketan eragin zuzena izango du. Alde horretatik, interesgarria izango litzateke, haur batek erreferente izan ditzakeen hiru pertsona aldiro batzea: esaterako, gurasoak, entrenatzailea eta musikako irakaslea. Eta, elkarrekin haurraren jarraipena egin. Baina diodan moduan, harmailetan gurasoak eredugarri izan behar dira.

Komunikabideok ze eragin izan dezakegu? Gogoan dut duela egun batzuk, Argentinan, Riverren eta Bocaren arteko partiduan izan ziren iskanbilak... Mundu osoan ikusi ziren irudiok.

Pasada bat izan zen hura. Halako irudiak gehiegitan ematen badira badirudi hori dela normalena, baina, gorde ere ezin dira egin, errealitate bat ezkutatzea izango litzatekeelako.

Orain, baina, kazetari edo aurkezleek kritikatu egiten dituzte jarrerok, eta lehen ez zen hori horrenbeste egiten.

Bai, ni ere konturatu naiz horretaz. Saio askotan informazio hori eman egiten dutela, baina ondoren kazetariak iritzia ematen duela, kritikatuz. Izan daiteke bide bat, eta beste bat, Bergaran egindako moduko ekitaldien berri eman.

"Oso balorazio positiboa egiten dugu"

Bergara Kirol Elkarteak eguenean antolatutako berbaldira 80 ikusle animatu ziren: "Egia esateko, ez genuen horrenbeste jende espero, eta oso pozik geratu ginen. Bergarako jendeaz batera beste herri batzuetako klubetako ordezkariak izan ziren, eta hartu-eman polita izan genuen", adierazi zuen Marian Melladok.

Berbaldiko une bat. | BERGARA K

MIZPIRUALDE EGOITZA

Teodora Ortuzarrek 102 urte

Mizpirualde Zaharren Egoitzan izan zuten zer ospatu joan den egubakoitzean, azaroak 9. Izan ere, Teodora Ortuzarren urtebetze eguna izan zen, eta egunero ez ditu gutako batek 102 urte betetzen. Hala, urtebetetze eguna etxekoekin ospatu zuen Ortuzarrek –argazkian– eta alkatearen bisita ere izan zuen, lore sorta eta guzti.

Lokatzak antolatutako hurrengo jardunaldi teknikoa, eguaztenean

X.U. | BERGARA

Azaroko tenperatura hotzek bizikletaren praktika alboratzera gonbidatzen dutenez, txirrindularitzaren beste arlo tekniko batzuk lantzeko proposamenaz datoz Lokatzako Ziklismo Eskolako lagunak. Hala, hainbat jardunaldi antolatu dituzte azaroan zehar egiteko; hala, joan den astean egindako lehenengo saioak arrakasta polita izan zuen, jende dezente batu zen-eta elikaduraren gainean izandako berbaldia entzutera.

Aurreratu moduan, dagoeneko egin dute lehenengo saioa, eta hurrengoa azaroaren 14an izango da, eguaztena, 19:00etan Irizar Jauregian –hitzaldi guztiak doan dira eta txirrindularitza praktikatzen duten herritarrei zuzenduta daude; hala, oraingo eguazteneko saioan gimnasia hipopresiboak landuko dituzte, Saioa Etxeberriaren eskutik.

Segurtasuna eta psikologia

Jardunaldi teknikoen hirugarren jardunaldia azaroaren 20an egingo dute, eta orduan Euskadiko Txirrindularitza Federazioko Jose Mari Laskurain izango da hizlaria, eta errepideetako segurtasuna izango du berbagai.

Jardunaldiokin amaitzeko, azaroaren 27an Psikolagun elkarteko Aitziber Aierdik emango du berbaldia, eta psikologian oinarrituko da. Hala, saio guztiak Irizar Jauregian izango dira, ordu berean (19:00).

MARIAREN LAGUNDIA

MARIAREN LAGUNDIA

Mariaren Lagundiko ikasleak herria ezagutzen ibili dira

Mariaren Lagundia ikastolako lau urteko ikasleak udaletxean izan ziren aurreko astean. Bergarari buruzko proiektua lantzen ari dira, eta udaletxea bisitatzeaz batera Jexux Elortza alkateaz ere egon ziren. Hirugarren mailako ikasleek, berriz, turismo-bulegoko arduradunaren laguntzarekin Bergarako alde zaharrean zehar ibilbide tematikoa egin zuten; hala, ikasgelan landutako kontuak bertatik bertara ikusi zituzten.

Aurrekontuetan parte hartzeko proposamena

X.U. | BERGARA

Foru Aldundiak gipuzkoarron parte-hartzea nahi du 2013ko aurrekontuak denon artean erabakitzeko, eta horretarako hainbat bilera egingo ditu Martin Garitano diputatu nagusiak, Foru Aldundiko beste ordezkari batzuekin batera.

Batzarrok Gipuzkoako hainbat herritan egingo dituzte, azaroaren 15ean hasita, eta Bergarako batzarra azaroaren 27an izango da, martitzena, 19:00etan hasita Zabalotegiko aretoan.

Ozaetako errepidea itxita egongo da bihar eta etzi

Kiroldegi pareko aparkalekutik Ozaetako zubirainoko tartea itxiko dute 08:00etatik 19:00etara

Asfaltatze lanak egiteko itxiko dute irudiko errepidea. | MONIKA BELASTEGI

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bihar eta etzi, hilaren 13an eta 14an, Ozaeta kalean asfaltatze lanak egingo dituzte –eguraldiaren arabera aldaketaren bat egon daiteke plangintzan–. Ondorioz kiroldegi aurrean dagoen aparkalekutik Ozaetako zubirainoko gunea trafikoari guztiz moztuko da egun horietan 08:00etatik 19.00etara. Horrek zenbait aldaketa eragingo ditu hainbat zerbitzutan.

Autobus geltokien kasuan, Pesako geltokia Mayc ondoko biribilgunera eroango da –aurretik ere, beste obra batzuk zirela eta eroan zen leku berera–, Herribuseko geltokia desagertu egingo da eta Ozaeta eta kiroldegi arteko ibilbidea saihesbidetik egingo da. Eskolako garraioa beharren arabera antolatuko da eta eskoletan jakinaraziko dute.

Garajeen kasuan, errepidea itxita egongo den egun eta ordu jakin horietan ezin izango dira –larrialdietako kasuak salbuespena izango dira–, inguruan dauden garajeak eta aparkalekuak erabili, sarrera-irteera bakarra, Ibarra kaletik egin ahal izango delako.

Azkarruntz eta Angiozarreko auzoetara joateko, Agirrebeña zubiaren ondoko bidea egokituko dute. Beraz, ibilbide guztiak Ibarrako errotondatik, Oxigenos-etik, egin beharko dira.

Bost film azaro eta abenduan gaztetxeko zineklubean

M.B. | BERGARA

Gaztetxeko kideek prest dute azaro eta abenduko zineklubeko egitaraua. Emanaldiak domeketan izango dira, 18:00etan eta bi hilabeteotan bost film emango dituzte.

Atzo, domeka, abiatu zuten emanaldi sorta. Datozen saioetan honako filmak ikusteko aukera egongo da: azaroaren 18an, *Leaving Las Vegas*; azaroaren 25ean, Begirada feministadun film laburren emanaldia egongo da; abenduaren 9an, *Gartxot*; eta abenduaren 16an, *El precio de la verdad*.

Zabalotegin ere bai

Udalak antolatutako zineklubaren kasuan, etzi, hilak 14, *Las Nieves del Kilimanjaro* emango dute; 21ean, *El Skylab*; eta 28an, *Ziztadak-Tabanos* izeneko filma. Emanaldiok Zabalotegi aretoan izango dira, 20:00etan. Sarrera 3 euro dira.

Amodiozko gutunen 21. lehiaketa abiatu du Jardun elkarteak

1998an edo lehenago jaiotakoek parte hartu ahal izango dute, urtarrilaren 7a baino lehen

M.B. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak amodiozko gutunen 21. lehiaketa abiatu du.

Lehiaketan, 1998an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Horrekin batera, lanek gutun forma izan beharko dute, eta DIN A-4 orrietan eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira. Bestalde, ezin izan izango da bi orrialde baino luzeagoa izan.

Posta arruntez bidaltzeko, egilearen datuak kartazal txiki batean sartu ondoren, kartazal hori eta gutuna kartazal handiago baten sartuta bidali beharko da. Posta elektronikoz bidaltzeko, berriz, gutuna fitxategi batean bidali beharko da, gutuna izenarekin eta egilearen datuak egilea izena duen beste fitxategi batean.

Gutunok helbide honetara bidali beharko dira, 2013ko urtarrilaren 7a baino lehen: Jardun elkartea, Errotalde jauregia, 20570, Bergara; posta elektronikoa, berriz, *amodiozkogutunak@euskalerria.org* da.

Lau sari egongo dira

Jardun elkarteak lau sari banatuko ditu. Sariok erabakitzeko epaimahaia literatura eta kultura munduko pertsona ezagunek osatuko dute. Gazteen sarirako epaimahaia, berriz, Bergarako ikastetxeetako ikaslez osatua egongo da. Sariei dagokienez, lehen sarituak 500 euro jasoko ditu; bigarrenak, 250 euro; eta bergarar onenak eta 26 urtetik beherako gutun onenak 150 euro jasoko dituzte. Azkeneko bi sari horien kasuan, lehen edo bigarren saria Bergarako norbaitek edo 26 urtetik beherako norbaitek jasoz gero, saria herriko hurrengo onenari zein 26 urtetik beherako hurrengoari emango litzaioke.

Sari-ematea, ohi bezala, otsailaren 14an, San Balentin egunean, egingo dute, kultura etxean, 19:00etan.

Gaztainak jan eta abestu egin zuten barikuan

Gaztaina-erre Eguna ospatu zuten San Martin agirre ikastetxean. Ikasle eta irakasleekin batera gurasoak ere batu ziren ekitaldira. Gaztainak jan eta abestu egin zuten guztiek elkarrekin, eta primeran pasa zuten egubakoitz arratsaldea. Ekitaldiko argazki galeria *www.goiena.net* atarian ikus daiteke.

MONIKA BELASTEGI

OHARRAK

1943AN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE

Azaroaren 17an egingo dute, Azpeitxi jatetxean, 14:30ean. Izena emateko deitu zenbaki hauetara: 943 76 16 13 (Arantza Askasibar), 697 29 42 67 (Juan A. Fernandez) edo 645 72 27 10 (Carlos Arrondo). Izen-ematea hilaren 15ean bukatuko da.

1972AN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE

Azaroaren 17an egingo dute, Tartufon. Etxagi edo Bulen eman behar da izena, 10 euro aurreratuta. Azaroaren 11 da izena emateko azken eguna.

1964AN JAIOTAKOEK KINTADA EGINGO DUTE

Azaroaren 24an egingo dute, Erreki jatetxean. Ikuz garbitegi -zerbitzuan eman behar da izena –Udal Azokako lehen solairuan dago–, hilaren 17a baino lehen, 10 euro aurreratuta.

1939AN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE

Azaroaren 24an egingo dute bazkaria, Pertxa elkartean, 14:30ean. Bazkarirako izena emateko, deitu 943 76 24 79 (Eulalia Elgarresta) edo 943 76 28 58 telefono zenbakira (Pello Garitano).

1935EAN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE

Zumelaga jatetxean egingo dute bazkaria, azaroaren 25ean, 14:30ean. Horretarako, 12 euro aurreratu behar dira Euskadiko Kutxan azaroaren 21a baino lehen.

1966AN JAIOTAKOEK AFARIA EGINGO DUTE

Abenduaren 1ean egingo dute, 22:00etan, Zumelaga jatetxean. Izen-ematea hilaren 28ra arte da, Ariznoa tabernan, 10 euro aurreratuta. Afari egunean ere Ariznoan batuko dira, 19:30ean.

Egigurenen eta Otegiren elkarrizketak 'Su txikian'

Domekan da antzerkia, euskaraz eta gazteleraz, eta sarrerak salgai daude Barrabarran

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Su txikian izeneko antzezlana ekarriko du Glu Glu antzerki konpainiak domekan Oñatira. Egun Euskal Herriak bizi duen momentu historikoarekin lotura zuzena duen antzezlana da, Jesus Egiguren sozialistak eta ezker abertzaleko Arnaldo Otegik bake prozesua lortzeko izan dituzten elkarrizketak jasotzen baititu.

Txillarre baserrian

2001. urtean hasi ziren Egiguren eta Otegi elkarrizketa sekretuak izaten Elgoibarko Txillarre baserrian. Han esandakoak eta egun bizi dugun egoerara heltzeko bidean izan duten garrantzia taularatuko ditu Glu Glu konpainiak, lorpen eta frustazio guztiekin.

Debagoieneko saio bakarra

Galder Perez da antzezlanaren zuzendaria eta zazpi aktorek zapalduko dute taulagaina. Joxe Mari Carrerek, esaterako, Jesus Egigurenen papera antzeztuko du; Gabriel Ocina Arnaldo Otegi izango da eta Mañu Elizondo eta Martxelo Rubio aktoreak ere ikusiko ditugu, besteak beste, Rodolfo Ares eta Josu Jon Imazen larrutan.

Hilaren 6an estreinatu zuten, Azpeitian, eta Lasarten eta Elgoibarren egon ostean etorriko dira Oñatira. Eta Oñati da Debagoienean antzeztuko duten herri bakarra, urtea bukatu bitartean. Emanaldiak domekan izango dira, 18:00etan euskaraz eta 20:30ean gazteleraz. Sarrerak salgai daude *www.barrabarra.eu* helbidean.

Su txikian antzezlaneko momentu bat. | GLU GLU

Edertasunaren eta ongizatearen hilabetea da azaroa Txandarendako

Txanda txartela erabilita, osasun eta edertasun tratamenduak eskura daitezke azaroan

O.E. | OÑATI

Txanda herriko dendarien elkarteak beste promozio bat jarri du martxan hilabete honetan. Azaroan erosketak Txandako txartelarekin ordainduz gero, bezeroek 40 euroko balioa duen 30 sarietako bat eskuratu ahal izango dute.

Momentuko saria

Sariak datafonoko tiketak emango ditu, aliritzira. Horrela, bezeroak momentuan jakingo du saritua izan den edo ez. Ondoren, saria duen papertxo hori herriko zenbait dendatan trukatu beharko du.

Zazpi dira osasun eta edertasun arloan diharduten Txandako bazkideak: Distira, Dor eta Guztiz Eder estetika zentroak, Mari Jose Jauregialtzo eta Lamiak ile-apaindegiak eta Amalur eta Egaña belardendak.

Arlo konkretuko sariak

Promozio bide honekin, Txandak bide berri bati ekin dio, arlo konkretu baten diharduten dendetara mugatuz. Honen helburua da, batetik, bezeroaren fideltasuna saritzea eta bestetik, Txanda elkartea bera osatzen duten denda ezberdinek eskaintzen dituzten produktuak ezagutzera ematea.

Azaroan zehar osasuna eta edertasunerako tratamenduak zozkatuko dituzte, baina sariak Txandako edozein dendetan lor daitezke, erosketak Txandako txartelarekin ordainduz gero. Hilabete honetan, 1.200 euro banatuko dira saritan.

Miravalles Restaura enpresako langile bat Oñatiko dokumentuak eraberritzen. | OÑATIKO UDAL ARTXIBOA

Artxiboan dauden hainbat kontu liburu zaharberritzen ari dira

XVI-XVIII mende arteko udalek zituzten gastuak eta bitxikeriak jasotzen dituzte dokumentuek eta erabilgarri izateko moduan utziko dituzte berriz

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Udal artxiboan gordeta dauden XVI. eta XVIII. mende arteko hainbat dokumentu zaharberrituko ditu Udalak. Bi enpresa ezberdinei esleitu zien lana Udalak: Miravalles Restaura eta Barbachano&Beny enpresei, hain zuzen ere, ia 14.000 eurotan. Bigarren enpresak dagoeneko egin du berari egokitutako lana, eta dokumentu horiek Udal Artxiboan daude bueltan. Beste enpresari egokitutako lana, berriz, urtea bukatu orduko amaitzea da asmoa.

Egoera txarrean

Zehazki 1524-1731 urte bitarteko udal kontu liburuak eta espediente batzuk dira zaharberritu gura direnak. "Oso egoera txarrean daude. Aspaldikoak dira, zaharrak, eta batzuk oso kaltetuta daude. Onddoak agertu dira hainbat dokumentutan eta papera hauskor bihurtu da. Dauden moduan egonda, liburuak ezin dira kontsultatu, eta, zaharberritze lanak eginda, erabilgarriak izango dira berriz ere", azaldu du Udal Artxiboko arduradun Izar Salaberrik. Berreskuratu gura diren dokumentu horietako asko, gainera, zikinak zeuden, eta orbanek ez zuten irakurtzen uzten. Gainera, tolesturak zituzten paper ertzetan, eta, zenbait kasutan, paperek intsektuak egindako zuloak zituzten.

Kontu liburuak

Zaharberrituko diren dokumentu horiek lehengo kontu liburuetan jasotako dokumentuak dira. "Eskuz idatzita daude, gazteleraz, eta orduko udalen gastuak agertzen dira", dio Salaberrik. Hau da, udalek zenbat diru gastatu edo jaso zuten jakin ahal da dokumentu horiek irakurrita, baita noiz, nori eta zergatia. Hala ere, ikertzaileek arrazoi ezberdinengatik kontsultatu izan dituzte dokumentu horiek; esaterako, jesuitei buruzko doktoretza egiteko edo animalia arriskutsuei buruzko ikerketa bat egiteko.

Garbiketa eta desinfekzioa

Dokumentu horiek garbitu eta desinfektatu egingo dituzte zaharberritze lanetan, eta kalitatezko kontserbazio materialak erabiliko dituzte, neutroak eta itzulgarriak. Batzuk erabilgarri daude artxiboan.

Onddoak janda, orbanak edo intsektuek egindako zuloak zituzten

Animalia arriskutsuen ikerketa baterako kontsultatu dituzte

Dokumentu batzuk dagoeneko erabilgarri daude artxiboan

Birziklatutako bitxigintza ikastaroa gaztelekuan

Birziklatutako bitxiak nola egin erakutsiko dute gaztelekuan antolatu duten ikastaroan. Arantxa Martin da irakaslea eta bospasei saiotan emango du ikastaroa; egutegia eta ordutegia elkar ezagutzeko egingo duten lehen bileran adostuko dute interesatuek. Izena emateko azken eguna azaroaren 16a da.

Gripearen aurkako txertoa azaroaren 30era arte har daiteke

Gripearen aurkako txerto kanpaina azaroaren 30era arte luzatu dute. Beraz, txertoa hartu gura duenak aukera du oraindik; anbulatoriora joan eta txertoa hartzeko txanda eskatu behar da. 65 urtetik gorakoei eta gaixotasun kronikoak dituztenei gomendatzen diete txertoa hartzea. Osasun zentroko telefono zenbakia: 943 03 54 30.

Azken 17 urteetako langabezia tasarik handiena du Oñatik

Azken 17 urteetako langabezia tasarik handiena erregistratu zuen Oñatik joan den hilean, urrian: %9,41. Aurreko hilabetean Oñatiko 37 langabetu gehiagok eman zuten izena Lanbideko bulegoan, eta 494 dira. Joan den urteko urrian 315 langabe zeuden herrian eta urtebetera, 494; 179 gehiago.

ESKORIATZA

Azken bi urteotan egonkor jarraitzen du euskararen erabilerak

- %34,4koa da euskararen kale erabilera
- Haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Soziolinguistika Klusterrak iazko udazkenean egin zuen euskararen kale erabileraren neurketa Eskoriatzan. Ikerketa horretan kaleko elkarrizketetan euskararen presentzia zenbatekoa den neurtu dute eta hauxe da ondorioa: behatutako hamar elkarrizketetatik hiru euskaraz izan dira eta sei gaztelaniaz. Beraz, %34,4koa da euskararen erabilera Eskoriatzan.

Herrian 2003an egin zen horrelako lehenengo azterketa eta ordutik 2009ra bitartean gora egin zuen euskararen presentziak kalean. Azken bi urtetan, baina, egonkor mantendu da euskararen erabilera Eskoriatzan.

Datuak adinaren arabera

Datuak adinaren arabera aztertuta, joera argia antzematen da Eskoriatzan: zenbat eta belaunaldi gazteagoak izan, orduan eta gehiago erabiltzen dute euskara.

Horrela, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak: 2011ko neurketan, herrian behatutako haurren %46,6 aritu dira euskaraz. Ondoren, gazteak daude (%40,5 euskaraz), baina azken urteotan gazteen euskararen erabilerak behera egin du. Atzetik datoz helduak (%27,3), horiek euskararen erabilera handitu egin dute, eta, azkenik, adinekoak daude (%22,5), adinekoen artean behera egin du euskararen erabilerak. Aldeak, hortaz, handiak dira, eta haurren erabilera-tasak bikoiztu egiten du adinekoena.

Gainera, euskararen erabilerak adin-taldeka zer-nolako bilakaera izan duen aztertuz, aipagarria da azken neurketekin alderatuta, gora egin duela helduen erabilerak eta behera egin duela gazteenak eta adinekoenak.

Bestalde, haurrak haurrekin ari direnean eta nagusiak nagusiekin gutxiago erabiltzen dute euskara, solas-taldean haurrak eta nagusiak elkarrekin nahasita daudenean baino. Zeharka bada ere, datu horiek bi fenomenoren berri eman dezaketela ondorioztatu dute: batetik, Eskoriatzako hainbat euskaldunen hizkuntza-gaitasun ahularen berri, eta bestetik, hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititzeko duten gogo eta konpromisoaren berri. Izan ere, nahiz eta nagusiak bakarrik dauden elkarrizketetan gaztelania gehiago erabiltzen den Eskoriatzan, haurrak tartean daudenean euskararen presentzia handitu egiten da.

ARETXABALETA

Toñi Navarrok jaso du Aretxarteren azken oparia

M.A. | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak Toñi Navarro saritu du azken astean. Irudi ile-apaindegian ilea tindatzeagatik eman diote sari hori, eta 50 euroko balioa duen oparia jaso du Amaia ume denda berriko nagusia den Amaia Elortzaren eskutik.

Aretxarteko merkatariek astero banantzen dute opari bat bezeroen artean. Hala, herrian bertan erosteak dakartzan abantailez gain oparitxo bat irabazteko aukera dute aretxabaletarrek.

Amaia eta Toñi. | ARETXARTE

ARETXABALETA

Sortu alderdia eratzeko batzarra azaroaren 17an

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Orain dela bi urte inguru aurkeztutako Sortu alderdiaren eratze prozesua jarri du abian oraintsu ezker abertzaleak, otsailean egingo duen batzarrera begira.

Aretxabaletan ere badago eztabaida horretan parte hartzeko aukera eta lehenengo bilera azaroaren 17an, zapatua, izango da, Arkupen (09:00). Alderdi berriaren oinarri ideologikoak eztabaidatuko dituzte bilera horretan, eta kide guztien ahotsa jasoko duen metodologia erabilita dinamizatuko dutela batzarra iragarri dute.

Ezker abertzaleko kideak dagoeneko hasi dira bilera horretara begirako prestaketak egiten eta bertaratuko direnen artean ponentziak banatzen. Horrez gain, nahi duenak Urbaltz tabernan edo *www.sortu.net* webgunean ditu eskuragarri ponentzia horiek.

Sortu alderdi berriaren sorreran parte hartu gura duten guztiak batzarrean agertzeko deia egin dute antolatzaileek.

ORTUZAL PROMOCIONES S.L,
Tel.: 943 76 11 18 - 943 79 40 00

ARETXABALETA
AUKERA EZIN HOBEA

ETXEBIZITZAK:
2 logela
2 bainugela
Sukalde hornitua
Ganbara bikaina

Azken etxebizitzak!!

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO
190.000€ (BEZ barne)

Joan den egueneko osoko bilkuran, ordenantza fiskalen bozketa unea. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

2013rako zergetan %3,1eko igoera orokorra aplikatzea onartu du Udalak

Udal tasak ez dira oraindik aztertu, txosten ekonomikoa egiteke dago-eta; eskola jantokietako kontsumo arduratsurako mozioa aho batez onartu zen

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

2013rako zergak KPIaren arabera igotzea onartu zuen Aramaioko udalbatzak egueneko osoko bilkuran. Hau da, igoera orokorra %3,1ekoa izango da. Udal gobernuko Lierni Altuna bozeramaileak zergen eguneratzea ezinbestekotzat jotzen du: "Udalaren diru-sarrerak behera doaz eta KPIaren araberako eguneratze bat derrigorrezko ikusi dugu Udalaren jarduna minimo batzuetan bermatzeko".

Jose Ramon Uribe Aramaio Alkartasunako zinegotzia ere iritzi berekoa da. Zergak eguneratzea beharrezkoa dela uste du Udalaren jarduna bermatzeko: "Zerga bereziak ez badira igotzen herritarrek beste alde batetik pairatuko dituzte igoerak; KPIaren araberako igoera ezinbestekoa da Udalaren biziraupenerako".

EAJko Iñaki Nafarrate, berriz, abstenitu egin zen ez zuelako denborarik izan igoerak aztertzeko. Igoera horien berri emateko batzordean ezin izan zen egon Arabako Diputazioan hitzordu garrantzitsua zuelako. Izan ere, finantziaziorako foru arau garrantzitsu bat eztabaidatu behar izan zuten Batzar Nagusietan: "Foru arau hori Arabako Udala, kontzeju eta batzorde administratiboei finantziazioa gehitzeko da eta urtean 12 milioi euro banatzen dira. Hala, alkateari esan nion batzordera ezin nuela joan Batzar Nagusietako osokora joatea derrigorrezkoa zelako".

Udal tasen igoerarik ez zen aztertu joan den egueneko osoko bilkuran, oraindik txosten ekonomikoa egiteke dagoelako. Beraz, 2013an ura eta zaborra esaterako zenbat igoko diren jakiteko itxaron egin beharko dute aramaioarrek.

ESANAK

"Eguneratzea derrigorrezkoa da gure jarduna bermatzeko "

LIERNI ALTUNA | BILDUKO BOZERAMAILEA

Eskola jantokiak hizpide

Bestalde, ekoizpen eta kontsumo arduratsurako irizpideak lantzen dituzten eskola-jantokien proiektuak laguntzeko Bilduk aurkeztutako mozioa aho batez onartu zen. Irizpide horien artean daude, besteak beste, elikagaien eraldaketa eta prestaketa ahalik eta hurbilenen egitea, nekazaritza eredu ekologikoan ekoiztutako sasoiko elikagaien kontsumoa eta tokian-tokiko elikadura ohituren berreskurapena eta jantokien egungo kostuak txikitzea.

Hala, Aramaioko udalbatzak aditzera eman gura du kudeaketa eredu bakar, baztertzaile eta zentralizatzaileak eragin duela eskola-jantoki publikoen kudeaketa negozio hutsa bihurtu dela. Gainera, eskola-jantokien inguruan indarrean dagoen lege-dekretua aldatzeko proiektu proposamena aurkeztea onartu zen osoko bilkuran.

LEINTZ GATZAGA

Bidegorri tartetxoa egokituta

Gure Ametsa jatetxe atzean bidegorriaren tartetxo bat txukundu du Aldundiak. Zagorra *(todo uno)* erabilita egokitu dute bidea, eta egurrezko hesia jarri alboan. Jatetxe inguru horretan hasten da Araba aldera doan bidegorria, eta Udalaren asmoa da poliki-poliki Goierri aldera ere egokitzen joatea.

MIRARI ALTUBE

Juan Manuel Arruabarrena | Margolaria

"Inpaktu bisualaren bitartez sentsazioak sortzea da helburua"

Margolan dotoreak ipini ditu ikusgai Espaloia kafe antzokian; intuizioa dute oinarri

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Zaletasun asko dituela dio, baina, momentuan, pinturari eskaintzen dio denbora luzeen. Soraluzekoak bost bat margolan ditu ikusgai Espaloian abenduaren 9ra arte.

Urte asko daramazu margolari lanetan?

30 bat urte. Eskopetetan grabatuak egiten hasi nintzen. Gero, ateak, leihoak, hormak, eta abar margotzen. Baina bestelako lanak agertzen hasi ziren: horma-irudiak, margolan txikiak... eta ikastaroak egiten hasi nintzen. Apurka-apurka, teknika berriak ezagutzen eta erabiltzen hasi nintzen. Ez da nire ogibidea, baina bai afizio handi bat.

Tamaina handiko lanak ekarri dituzu Espaloira, eta abstraktuak.

Bai. Aretoak oso dekorazio modernoa du, eta margolan aproposenak horiek direla pentsatu dut. Ez dut errealismorik egiten, ez zait kopiatzea gustatzen. Askoz gehiago erakartzen nau testurekin eta formekin lan egitea. Natura bada inspirazio iturri, baina ikerketarekin eta esperimentazioarekin gozatzen dut. Gauza batek bestera eramaten zaitu, eta askotan inora heltzen ez banaiz ere, entretenigarriagoa egiten zait ariketa hori.

Juan Manuel Arruabarrena. | L.Z.

Antzokian ipinitako erakusketarekin sentsazioak sortu gura dituzu ikusleengan.

Hori da. Inpaktu bisualaren bitartez sentsazioak sortzea da helburua. Nire lanak asko du intuiziotik, eta irudimenetik. Formatu handiko lanak dira, eta mota guztietako materialak nahasten dira bertan: hondarra, makilak, papera...

Denbora luzea eskaintzen diozu zaletasun honi?

Ahal dudan guztia, eta gero eta gehiago. Ondo sentiarazten nau, lasaitasuna ematen dit. Dibertigarria eta entretenigarria egiten zait, eta irudimena lantzeko aukera ematen dit.

ANTZUOLA

Onartutako apurketek plazer handia eragiten dute haurrengan. Egurrezko dorreak, hondarrezko gazteluak... "Errurik gabeko giro batean gustu eta plazer handiz apurtzen dute haurrek. Jolas horrek apurtzeko pultsionalitatea kontrolatzen lagunduko die, eta apurtu ondoren plazerez eta sormenez beteriko eraikuntza etorriko da".

Ezkutaketa

Silvia Donet psikomotrizistak azaltzen duenez, ezkutaketaren jolasak amarekiko separazioa gogoratu, eta modu ludikoan berriz bizitzeko aukera ematen dio haurrari. Elkartzeko momentuak apoteosikoa behar duela uste du Beristainek. "Jarri haurraren azalean. Gehien maite duen pertsona bere bila ibili da, aurkitu du eta pozez zoratzen jarri da".

Harrapaketaren jolasak zerikusi handia du ezkutaketarekin. "Haurraren ziurtasun afektiboa bermatzen du". Denborarekin otsoa edo pertsonaia beldurgarriren bat izateko eskatuko digula dio adituak: "Honela bere beldurrei aurre egiteko balioko dio jolasak".

Oreka-desoreka jolasa

Magalean hartu eta esan haurrari une batetik bestera jausiko dela. Emozio handiz biziko du unea. Beristainek argi du haurra ez dela jolasten jolasteagatik, baizik eta jolasak eskaintzen dionagatik.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

KULTURA

Bergarako Zabalotegi aretoan estreinatu zuen *Erlauntzaren sekretua* Bergarako Musika Eskolak zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

'Erlauntzaren sekretua': kantuz kontatutako haurrentzako ipuina

- David Azurtzak musikatu du, Josemari Iturraldek idatzitako istorioa
- Bergarako musika eskolako 4 eta 9 urteko 44 abeslari eszenatokian

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Naturak berba egiten zuen baserri giroan kokatutako ipuin batean murgildu gintuzten Bergarako musika eskolakoek zapatuan Zabalotegin. Birritan kontatu zuten *Erlauntzaren sekretua* ipuin musikatua.

Erle jakintsuen esanei kasu eginda bizi ziren bi lagun baserritar. Etengabe xaxatzen zituen etsaiak: erleak uxatu zizkien lehenengo eta lagun biak hiltzen saiatu zen gero. Ez zuen lortu baina. Trabak traba, bi lagunek lortu zuten arazoa konpontzea.

Artistak bistan eta ezkutuan

Eskenatokiaren erdian, istorioko izarra zen erlauntzaren alde bietan, 44 neska-mutiko zeuden.

Eskumatara, Marije Ugalderen gidaritzapean, talde instrumentala zegoen: Ane Zangitu, txeloan; Nekane Gabilondo, flautan; Marijo Juaristi, klarinetean; eta Angel Agiriano, akordeoiarekin. Guztiak, eskolako irakasleak.

Ezkerretan, gehienbat kantuz kontatutako istorioaren haria lotzen zuen Aitzol Mujika, ikasle baten aita, narratzaile lanetan. Horiek guztiak ikuslearen bistara, besteak beste, gurasoek egindako tximeleta, belar edo itsasoaren irudien artean. Efektu bereziak ere izan ziren!

Atzean, berriz, hilabetetako lana eta eskarmentu handiko profesionalak lan-taldean: horien artean, David Azurtza konposatzailea, Joxemari Iturralde idazlea eta Valen Moñux eszenografiaren arduraduna.

Ikusleen konplizitatea

Jarlekuak beteta, aretora sartzeko ilara egin zutenak, senitartekoak gehienak. Kamerak eskuetan, aurrean zutenari adi begira. Etxean egindako horrenbeste entsegu eta prestaketa lanen ostean, aretoko bi aldeetan nabariak ziren ilusioa eta konplizitatea.

Estreinaldira joandako ikusleak aretotik irten orduko, zain zeuden kanpoan bigarrenerako ikusleak. Protagonistak, gogotsu, eta lasaiago, berriz ere taula gainera igotzeko. Egindako lanaren fruitua dastatu genuen Zabalotegin; baina izango dira aukera gehiago, urte bukaeran Tolosan egitekoak direlako eta ibarrera ere eskaintza zabaltzen ari direlako.

MARIJE UGALDE
ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Irailean hasi ginen kantuak prestatzen eta bai, lana egin dugu; hala ere, sorpresak ere aurkitu ditugu, sekulako artistak ditugu taldean. Etorkizuna bermatuta dago. Lagundu diguten guztiei, eskerrik asko!"

UNAI SALILLAS
'BASERRITAR GAIZTOA'

"Eszenatoki gainetik handia eta zabala ikusten zen aretoa, jende asko. Gaiztoaren papera egokitu zait. Pozik nago egindakoarekin; lana izan den arren, gustura jardun dugu. Hurrengo baten ere parte hartzeko prest izango naiz".

IZASKUN SOLAUN
IKUSLEA

"Polita eta ezberdina da; gomendagaria, duda barik. Alaba eta semea izan ditut taularen gainean. Gu ere muntatzen laguntzen ibili gara. Zine eskaintzaz gainera, horrelako ikuskizun gehiago egon beharko lirateke".

NEREA OLASKOAGA
IKUSLEA

"Asko gustatu zait. Ikusteko alaia eta istorio polita iruditu zait. Harritu egin nau, haur txikiak izanda ere, ahotsarekin jolasteko erakutsi duten abilezia ederra. Alaba eta haren lagunei begira egon naiz bereziki".



DAVID AZURTZA

DAVID AZURTZA
KORU ZUZENDARIA ETA KONPOSATZAILEA

"Bergaran egin nahi nuen hasieratik"

Tolosarra den arren, gertutik ezagutzen du Bergarako musikagintza, besteak beste, 13 urtean izan zelako Orfeoiko eta Gabero Abesbatzako zuzendaria. Altzo du bizitoki eta Tolosa lantoki; berak dio handik hona ibiltzen dela, "tiriteroen moduan".

Estreinaldian beharrean, Madrilen aurkitu zaitugu.

Bai, pena handiz. Azaroan estreinatu gura zuten eta nik aurrez asteburu guztiak hartuta nituen. Ahotsari buruzko ikastaroa ematen ari naiz orain. Lana bukatu bezain laster deituko diet. Egun osoan gogoan izan ditut baina konfiantza osoa dut eurengan.

Badute eskarmentua.

Handia! Hasieratik jo nuen horregatik eurengana. Lan handiak egin izan ditugu elkarrekin; ezagutzen nuen zeukaten prestutasuna.

Zer da, zure ikuspuntutik, ipuin musikatu bat?

Haur txiki edo hastapenetako koruentzako idatzitakoa. Betiko ipuinen egitura duena.

Oinarria baina, musika.

Bai, kantuz kontatutakoa. Korua da protagonista, ez dago bakarlaririk. Koruak jasotzen ditu paper guztiak; orain gaiztoarena, erlearena gero, ardiarena hurrengo zatian... Noski, talde instrumentalaren eta narratzailearen laguntzaz.

Konposatzeaz gainera, prestatzen ere jardun duzu.

Talde instrumentalarekin jardun dut bereziki, nahiz eta musika udalekuetan ere haurrekin ere ibili nintzen.

Izango da hurrengorik?

Asko gustatzen zaidan formatua da; beraz, seguru baietz. Aurten gehiagorik ez baina, bi egin ditut-eta dagoeneko!

"Kantuan, korua da protagonista, ez dago bakarlaririk "

Parte-hartze kopurua eta umorea nagusi Film Laburren Lehiaketan

- Guztira hamabost talde ibili ziren Oñatiko txokoetan grabaketak egiten
- Nahiz eta talde gehienek umorea erabili, film sarituak bestelakoak izan ziren orokorrean

MIREN ARREGI | OÑATI

Gai nagusia, zalantza, eta erabili beharreko objektua, soka. Zapatuko Oñatiko Laburmetraien Rallyan sekulako jokoa eman zuten bi elementu horiek. Lehiaketan parte hartu zuten hamabost taldeek irudimena eta umorea faltan ez dutela erakutsi zuten.

Goizeko zortzietan elkartuta ekin zioten lanarik. Antolakuntzak grabaketak egiteko tokiak ere zehaztu zizkien: herriko plaza, ETEO zaharra, Kantonoste eta abar. Zehaztutako toki horietan guztietan erabiliena izan zen, zalantza barik, Lazarraga jauregiko lorategia.

Gero Pentsauku talde irabazlea goizean, grabaketaren une baten. | JOSETXO ARANTZABAL

Santa Ana lepo

Laburmetrai guztiak editatuta eta entregatuta, luntxa egin zuten parte-hartzaileek Santa Anako sarreratxoan, epaimahaiak erabakia hartu bitartean. 21:00ak inguruan hasi ziren proiekzioak. Santa Ana lepo beteta –parte-hartzaileez eta ikuslez–, hamabost laburmetraiak ikusi genituen. Hamabostetik hamabi sartu ziren sariketan, izan ere, beste hirurak berandu entregatzeagatik lehiaketatik kanpo geratu ziren.

Umorezko asko eta ederrak

Zalantzaren bueltan askotariko film laburrak ikusi genituen. Baziren dokumental egitura zutenak, hausnarketara bultzatzen zutenak, sorpresaren faktorearekin jolasten zutenak; baina, bereziki eta guztiaren gainetik zeuden barrea eragiten zutenak, umorezko filmak. Big Black Productions, Sinfin Films, Urtzi, Nandrolona, Kalabaza Productions, Hegoaixe, Lili eta abarrek barre algaraka ipini zituzten Santa Ana bete zuten herritarrak.

Labur onena, Gero Pentsauku taldearena

Maider Egües, Aitor Mantxola, Asun Arzuaga,Tere Zubia eta Martin Jauregialtzo izan ziren epaimahaikideak eta, beraz, film sarituak aukeratzeko ardura izan zutenak. Eurek erabaki zuten lehenengo saria Gero Pentsauku taldeari ematea, euren filmean "lengoaia zinematografikoaren erabilera ona" egiteagatik eta "sorpresaren faktorea bukaeraraino" gordetzeagatik. Bigarren saria Baratzeko Lamiak taldearendako izan zen, dokumental egitura zuen filma egiteagatik eta hausnarketara bideratzeagatik. Hirugarrena, "estetikoki ederra" zelako, Bilboko Espinaka Films taldearendako izan zen. Epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen Nandrolonaren *Joan-etorriak* filmak eta aurten lehenengoz publikoak eman duen saria Kalabaza Films taldearendako izan zen.

Parte-hartzaile kopurua, ideien originaltasuna eta azken emaitzak ikusita, antolatzaileak gustura daude hirugarren edizioak eman duenarekin.

Parte-hartzaile guztiak Santa Ana antzokian, sariketaren ostean. | JOSETXO ARANTZABAL

Ikusi Makusiko antzerki taldekoak, jaun eta jabe Santa Ana antzokian

- Umorea oinarri, alkateak galdutako hankaren istorioa irudikatu zuten
- Abenduan beste emanaldi bat egingo dute Santa Ana Antzokian

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI

Santa Ana antzokia ikuslez eta barrez betetzea lortu zuen beste behin Pake Leku elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak egubakoitzean. Amaieran gustura ziren artistak, jasotako txalo eta hitz goxoekin.

¿Donde está la pierna del alcalde?, taldearen zortzigarren lana estreinatu zuten; Pedro Mario Herrerok idatzitako *No le busques tres piernas* lanaren moldaketa da. Datorren hilean beste emanaldi bat egingo dute herrian, baina aurrez beste bi dituzte dagoeneko lotuta: Gernikan eta Elgetan.

Egindako lanaren fruitua

Alkatearen hanka ortopedikoaren bila jardun zuten ordu eta erdian taularen gainean ziren bederatzi aktoreak. Istorioa irudikatzeko bi dekoratu zituzten, egongela bat eta parrokiako bulego bat; horien ardura zuen taldeko hamargarren kideak. Aurreko lanek moduan, oraingoak ere umorea oinarri zuen, eta istorioak harrera ona izan zuen erretiratuek betetako herriko antzokian.

Asun Artzuaga, taldeko zuzendaria, ere gustura zen aurrez egindako lanaren eraginez jasotako fruituaz, eta gaineratu du entsegu asko egin dituztela; azkeneko asteetan, esateko, egunero elkartu dira.

Ikusi Makusiko aktoreak Santa Ana antzokiko estreinaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

Estreinua ondo joan bazen ere, lanean jarraituko dutela zioen, datozen emanaldietan ere errepikatu dadin arrakasta.

Bihotzeraino heldu zen 'Asaba zaharren oihartzuna' antzezlana

400 pertsona inguru izan ziren Amaia antzokian ikuskizunaz gozatzen

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Amaia antzokiko taula gainean guztira 50 pertsona inguru izan ziren Nafarroako konkistaren 500. urteurrenaren harira prestatutako antzezlana egiten. Arizmendi Ikastolako guraso eta irakasle talde batek antzeztu zuen eta parte hartu zuten baita ere Goikobalu-Arizmendi Abesbatzak, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak eta Arrasateko gaiteroek.

Pasartetan banatuta

Euskaldunak Erdi Aroan nola bizi ziren azaltzeaz gain, erregeak eta Elizak gure historian izan duten eragina ere taularatu zuten. Amaian batu ziren 400 ikus-entzuleek txaloz zoriondu zuten lana.

Arizmendiko antzerki taldea joan zen urtean hasi zen entseatzen Dabid Errasti zuzendariaren gidaritzapean egindako *Asaba zaharren oihartzuna* izeneko antzezlanerako. Egubakoitzean, antzezlana taularatu aurretik egindako luntxean indarrak hartzeaz gain, urduritasunak ere albo batera utzi zituzten parte -hartzaileek eta gogoz eta ilusioz egin zieten aurre 400 pertsonaren aurrean antzeztutako obrari.

Arizmendi Ikastolako antzerki taldeko kideak antzezten. | JOSETXO ARANTZABAL

Zioten euskaldunok gehienetan ez garela jabetzen gure herriak historian zehar izan dituen gorabeherekin. Eta "orain 500 urte Nafarroan bizi izandako gertaera tamalgarriek gure historiarekiko interesa piztu" zuelako sortu zela antzezlana. Bertan, gure historiako pasarteak ikusi ahal izan ziren atalka banatuta. Narratzaile lanetan ibili zen Xabier Latorrek modu serioan kokatzen zituen ikus-entzuleak garai hartan. Besteak beste, erregeak eta Elizak izan zuten protagonismoa eta tarte bakoitza bereizteko abesbatzakoen kantuak, dantzarien dantzak edo gaiteroen musika erabiltzen zuten.

Esaterako, Goikobalu-Arizmendi Abesbatzakoek Mikel Laboaren *Baga Biga Higa* abesti ezaguna kantatu zuten eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldekoek ezpata dantzarekin gerra irudikatu zuten.

Antzezlanaz gozatzera joan ziren 400 haur eta helduek euren gertukoek egindako lana txalotu zuten eta pozik irten ziren ikusi zuten ikuskizunarekin Amaia antzokitik.

JSOSETXO ARANTZABAL

Dantzarekin akrobaziak Amaian

Bartzelonako Brodas Bros konpainiak, hip-hop, funk eta elektronika musika estiloak ardatz hartuta, *Concierto Concepto* dantza ikuskizun paregabea egin zuen atzo Amaia antzokian. Taularen gainean, dantzariez gainera, musikariak ere baziren: perkusioa, beatboxa, flautista-saxofonista eta DJa, proiekzio bitartez. Ikusleak, gustura.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERMEA 2 URTE

1200 b/min
6 Kg

A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA 3TS-865 E
299 € Balay

BERMEA 2 URTE

1200 b/min
6 Kg

A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-6012
340 € FAGOR

BERMEA 2 URTE

1200 b/min
7 Kg

A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-7212X
450 € FAGOR

BERMEA 2 URTE

1200 b/min
8 Kg

A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-8212
430 € FAGOR

BERMEA 2 URTE

A++ Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13
399 € FAGOR

BERMEA 2 URTE

8 Kg

KONDENTSAZIOZKO LEHORGAILUA SF 820CE
399 € FAGOR



BERMEA 2 URTE

LAPIKOAK OPARI

INDUKZIO PLAKA IF-33BS
430 € FAGOR

BERMEA 2 URTE

BARBAKOA OPARI

A++ Sailkapen energetikoa
LABEA 6H-760AX
450 € FAGOR

BERMEA 2 URTE

INDUKZIO PLAKA HK-633220XB
450 € AEG

LABEA BP-3313091M
475 €

BERMEA 2 URTE

INDUKZIO PLAKA EH651TK11E
450 € SIEMENS

BERMEA 2 URTE

INDUKZIO PLAKA PIK651T14E
450 € BOSCH

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Debagoieneko **PROFESIONAL LIBERALAK**

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GURE MUSIKA TALDEAK

ERM

El Exterminio de la Raza del Mono. | JAGOBA DOMINGO

"Barneko sentimenduak kanporatzeko tresna indartsua da musika"

- "Gure lehen diskoa bigarren aldiz grabatzen ari gara orain"
- "Eskorbutok gu hemen egotearen erru handia duela uste dugu"

JAGOBA DOMINGO | ARAMAIO

Aramaioko El Exterminio de la Raza del Mono taldeko *Son, Kepis* eta *Pulga*-rekin egon gara oraingoan, babesleku pribatuan, taldearen ibilbideaz eta etorkizunaz hitz egiteko asmoz. Debuteko diskoa amaitzen dabiltza eta espero dute gutxi barru kalean egotea. Ibarreko azken punk taldea da ERM, edo, gutxienez 80ko hamarkadako punkaren sua bizirik mantentzen duen azkenetakoa.

Noiz erabaki zenuten gizartea akabatzea?

Orain dela pare bat urte, 2010eko uda bukaera aldera, *Son* gitarra-jolea eta ni *[Kepis,* baxu-jolea] entsegu lokalera batera joaten hasi ginen. Aurretik beste talde batzuetan ibilitakoak gara; beraz, instrumentuak konektatu bezain laster, taldearen bide eta bizitza propioa bilatzen saiatu ginen. Bateria-jole bat hartu, eta inprobisazio bidez kantu propioak egiten hasi ginen, eta hala sortu genuen *Yo tan solo*, gure lehenengo kantu propioa. Hala ere, Cicatriz, Eskorbuto eta Anticuerpos taldeen bertsioak egiten genituen denbora-pasa moduan, baina gerorako ona izan zen.

> **"Despojos de esta tierra' da gure lehenengo lanaren izena"**

Beraz, hasieratik zuen bidea bilatzen saiatu zarete, ezta?

Bai, argi izan dugu musikak bide ezberdinetatik eramaten zaituela, eta barnean duzuna kanporatzeko tresna indartsua dela. Beraz, gure barrunbeak ateratzeko, gure bidea bilatu behar dugu.

Zein ibilbide izan duzue orain arte?

Taldea sortu zenetik gaur egunera arte, adibidez, bateria-jole ezberdinak izan ditugu, baina orain, *Pulga*-rekin, nahi genuen egonkortasuna lortu dugu. Entseatzen hasi eta, gutxi gorabehera, lau hilabetera eman genuen lehen kontzertua Erandioko Zentinel tabernan, eta polizia agertu zen kontzertua bukatzeko aginduz. Lehen kontzertua izateko esperientzia bizia izan zen. Gero, han eta hemen kontzertu dezente eskaini ditugu.

Lehen lana grabatzen zabiltzate, baina Interneten zuzeneko abestiak dituzue entzuteko.

Gehienak orain dela bi urte Aramaioko jaietan egin genuen kontzertukoak dira, zuzeneko kantuak. Hala ere, gure lehenengo grabazioan egindako pare bat kantu daude taldearen myspace -an, baina diskoa berriz ere grabatzea erabaki genuen.

Hasiera batean, Aretxabaletako gaztetxean Joanes teknikariarekin grabatu genuen diskoa, eta hura amaitu ondoren diseinua egiteari ekin genion. Eta diskoaren alde grafikoa ikusi ondoren, kantuak berriz ere grabatzea erabaki genuen, grabazio zaharrak ez zuelako taldea islatzen.

Orduan, orain, non zabiltzate grabatzen?

Berriz ere Aretxabaletako gaztetxean gabiltza, baina oraingoan, Karlote-ren Nekrosounds estudioan. Kantuak bukatuta daude; ahots pare bat bukatzea, gitarraren zati batzuk eta kolaborazioak falta dira. Egia esan, bigarren grabazio honen emaitza askoz ere fidelagoa da.

Zeintzuk izango dira kolaboratzaileak?

Gutxienez, aurreko grabazioan parte hartu zutenek berriz ere grabatzea espero dugu. Bertan, *Igor del rock* eta Subversion X taldeko Jabi izan ziren gurekin. Hala ere, sorpresaren bat lortzea espero dugu. Jabik kantu baten gitarra-punteatzeak grabatu ditu eta beste abesti baten ahotsak sartu ditu. Haren kolaborazioa nahiko berezia da guretzako, Subversion X taldearekin dugun harremanagatik. Aspaldian gustuko izan dugun taldea izan da, 80ko hamarkadako Bilboko punkaren hurrengokoak direlako.

> **"9 urterekin entzun nuen lehenengoz Eskorbuto"**

Zein da zuen lehen lanaren izenburua eta zer aurkituko dugu?

Despojos de esta tierra deituko da, eta bertan, momentu honetan taldearen erreprodukzio fidela lortzea espero dugu. 12 kantu grabatu ditugu; lehenengo grabazioaren eta bigarrenaren artean kantu berri bat egin eta grabatu egin dugu. Horrez gain, posible izanez gero eta denbora lagun badugu, bideoklip bat grabatu nahiko genuke, baina horretarako nahiko argi eta bizkor ibili beharko dugu.

Taldearen izena Eskorbutoren kantu baten izena da. Zer da Eskorbuto zuentzat?

Inspirazio iturri handiena da. Musika baino zerbait gehiago da Eskorbuto guretzat, gauzak egiteko eta bizitzari aurre egiteko era bat da. Gaztetan, 9 urte nituela, anaiak *Impuesto revolucionario* zinta oparitu zidan, eta momentu garrantzitsua izan zela uste dut. Musikalki gustatu egin zitzaidan, baina, aurrerago, kantuen letrekin identifikatuta sentitu nintzen, bai ni, bai taldekide guztiak. ERM sortu aurretik, TAE [Tributo a Eskorbuto] proiektuarekin kontzertu pare bat egin genituen. Beraz, taldea sortzeko momentuan eta gure bizitzan garrantzitsua da Eskorbuto.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Altsasu. Bigarren eskukoa eta ia ia erabili gabe. Altzariak jarrita. Deitu 618 19 07 24 telefono zenbakira.

Arrasate. Zarugalde kalean. Bi logela eder, egongela zabala, sukaldea eta komuna. Horrez gain, terraza zabala, balkoia, trastelekua, igogailua eta berokuntza indibiduala. Sukaldea eta komuna guztiz jantzita. 2006ko eraikina da. Interesatuok, deitu telefono zenbaki hauetara: 660 20 58 92, 653 71 79 03

Arrasate. Krisira egokituriko prezioa. Etxe eraberritua salgai. Altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. Interesatuok deitu telefono honetara: 650 01 05 15.

Asturias. Asturias-en bi pisuko etxea eta lur saila salgai. 649 40 26 22

Bergara. Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. Aukera oso ona. 114.000 euro. 618 44 38 44.

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel: 647 77 73 92.

Berriz. Olakueta auzoan, etxe argitsua eta bista ederrekin. 3 logela haundi, balkoiarekin lotutako egongela eta sukaldea. Komun bi. Igogailua eta ganbara. Garraio publikoetatik minutu batera. Harremanetarako: 685 72 46 90 / 675 71 23 69.

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel: 647 77 73 92.

Cuzcurrieta del rio Tiron (Errioxa). Hiru logela, garagea eta igerilekua eta lorategia komunitarioak. Prezioa: 100.000 euro. Deitu telefono honetara: 692 99 43 51.

Durango. 86 m2-ko etxebizitza salgai, Murueta Torre 7n. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, ganbara eta garajea. Solairua: 5. Prezioa: 270.000 euro. 688 64 26 43 (Jaione).

Durango. Askatasun etorbidean pisua salgai. Dena hegoaldera, oso eguzkitsua egun osoan, 83m2 erabilgarri, 3 logela, 2 komun, 2 garaje handi, trasteroa, igogailua garajeraino, oso ondo zaindua eta modernoa. 652 75 54 46.

Elorrio. Duplex etxebizitza, 78 m2 erabilgarri (90 m eraikiak). Argitsua eta isila, errekara begira. Egongela nasaia, logela bi eta bainugela bi. Errekakale, 10 2gn solairua. ziortzaloizate@hotmail.com 605 72 29 45.

Elorrio. Elorrio erdigunean estreinatu gabeko etxea salgai. 77m2, 3 logela, 2 bainu eta garajea, altzariekin. Prezioa, 230.000euro. Deiutu 634 45 72 01 telefonora.

Iurreta. Pisu bat salgai Arriaundin, Iurretan. 66.000 euro. 685 72 80 42.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 112m2 azalera eraikituak. Aukera bikaina. 695 77 31 41.

Otxandio. Otxandion partamentua salgai. Trastelekua eta igogailuarekin. 675 71 72 83

102. EROSI

Durango. Durangon pisu bat erosiko nuke. Hiru logelako pisua edo 80m2 baino gehiagokoa bi baditu. Gehienez 180.000 euro ordainduko nituzke. Deitu 676 98 55 01 zenbakira

103. ERRENTAN EMAN

Altsasu. Logela bat, terraza eta balkoia, argitsua, altzariekin eta aparkalekuarekin. 616 07 52 68 eta 639 46 07 86.

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Araba ibilbidean. Hiru logelakoa. 651 70 79 96.

Donostia. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen dut Donostian, Antiguo auzoan bertan. Persona bat edo bintzako egokitua, bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 500 euro. 609 48 11 24.

Irurtzun. 3 logela, argitsua, altzariekin eta banakako berogailuarekin. Oso polita. Leku ona. 600 38 74 00.

Iurreta. Iurretan logela alokagai. 200 euro, gastuak aparte. 633 23 38 48. Jon

Zaldibar. Erdialdean, guztiz berriztua, jantzi barik, 2 logela. 660 45 87 56.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada erdialdean edo gertu. Hiru logelakoa. 679 60 08 48.

Arrasate. Etxebizitza txiki edo apartamentu baten bila nabil errentan hartzeko. Deitu telefono honetara 653 72 43 19.

Bergara. Familia batentzat etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696 70 55 09.

Bergara. Pisua hartuko nuke errentan, pertsona euskalduna. 635 74 61 45.

Bikote euskalduna Arrasaten pisu txiki bila. Bikote euskalduna eta arduratsua. Arrasaten pisu txiki baten bila gabiltza. Urtarrilean sartzeko. 636 38 81 00

Elorrio. Pisu bila nabil alokatzeko, 3 logelarekin eta altzariekin. 94 658 21 91

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. 250 euroan Erguinen logela ematen da errentan. Gastuak erdibana. Deitu telefono honetara: 610 62 65 04

Arrasate. Kaixo, hiru neska euskaldun gara eta Arrasaten pisukide bila gabiltza gela bat betetzeko; neska zein mutil. Pisua alde zaharrean dago, handia eta argitsua da, lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi eta eguzkitsua ditu. Alokairua, wifia, telefonoa eta gastuak, 220-230 euro hilean, pertsonako. Animatu eta deitu! 608 57 97 70 edo 665 71 69 10

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Inaki. Deitu telefono zenbaki honetara: 608 49 89 93

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. Deitu telefono zenbaki honetara: 670 85 86 68.

Berriz. Gela bat alokatzen da Berrizen. Deitu telefono zenbaki honetara: 662 92 69 11.

Durango. Pisukide bila gabiltzan bi lagun gara. Hizkuntza Eskola aurrean dago pisua, alde zaharretik oso gertu, eta Tabirako lasaitasunagaz gozatzeko aukera aproposa. Animatu! 679 62 04 47.

Durango. Durangon logela bat alokatzen dut. Madalenoste kalean, autobus geltokiaren ondoan. Deitu telefono zenbaki honetara: 650 73 87 24.

Durango. Bi pertsona hirugarren bila Tabiran behe pisu bat konpartitzeko. 3 logela, 2 komun. Deitu telefono zenbaki honetara: 637 29 24 65.

Durangaldea. Logela alokairuan Landako etorbidean, Durangon. Pertsona arduratsuari emango zaio lehentasuna. Deitu telefono zenbaki honetara: 648 20 03 70.

Elgoibar. Logela daukat errentan emateko. Deitu telefono honetara: 699 60 91 90.

Gasteiz. Logela ematen da errentan. Unibertsitate inguruan. 651 55 36 29.

Logela handia errentan, Arrasaten. Logela handi bat emango nuke errentan, Arrasateko erdialdean. 629 80 77 73

Korosti INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000€. PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Zubiaurre 52 m², 2 logela. 141.238 €.
- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253 €.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000 €.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000 €
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000 € baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 210.354 €.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 75 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405€.

ANTZUOLA:
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Durango. Durangon Fray Juan de Zumarraga kalean (Euskaltel dendaren azpian), garaje/trastero itxia salgai. 629 41 43 63.

Durango. Fray Juan de Zumarraga kalean, 8m2-ko trasteroa alokatu edo saltzen da. 629 41 94 11.

Durango. Garajea salgai Plateruen plazan. 28.000 euro. 679 47 57 85.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. 660 45 87 56.

Elorrio. Elorrioko Berrio otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! 658 75 92 64.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. 660 45 87 56.

Otxandio. Bi garaje salgai, bat itxia. Otxandion. Deitu zenbaki honetara: 675 71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 15,5 metro koadroko garaje itxia saldu edo errentan ematen da erdigunean. Kontzezino-iturbide egoitza artean. Deitu 628 14 92 74 edo 943 77 08 02 zenbakietara.

Bergara. Ibargarai kalean garaje itxia ematen da errentan. Maniobra egin barik sartzeko modukoa. 679 74 00 61.

Durango. Garajea alokagai. Askatasun etorbidea, 35. 50euroan. 675 71 95 54.

Durango. Durango erdigunean, ezkurdi inguruan kokatuta dagoen garajea errentan. 629 24 07 23.

Durango. Garaje itxia errentan Durangon, erdigunean kokatua. 629 24 07 23.

3. LOKALAK

301. SALDU

Durango. 25 m2-ko eraikuntza berriko lonja, Durangon. Bulego baterako edo komertziorako aproposa. Zonalde komertzial onean kokatua. Gutxienez bi logela dituen etxebizitza batengatik aldatzen dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 81 85 92.

Gasteiz. Azken erabilera: Tailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonei moldatua. Hiri erdigunekiko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzea ere posible da: 800euro/hil. Telefonoa: 665 75 78 07 (Ana).

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Lonja ematen da errentan, San Andres auzoan, elektronika parean. Deitu telefono zenbaki honetara: 94 467 60 20.

Durango. Bulego bat alokatzen dut Durangon. 42 m2. Durango erdian. 656 78 02 15.

Durango. 65 m2-ko lokal komertzial egokitua. Eraikuntza berria. Madalena zonaldean. Deitu 609 15 92 45 edo 655 24 03 27 zenbakietara.

Elorrio. 170m ko lokal zoragarria Elorrio erdian alokatzeko prest, 4 eskaparate haundiak, autobus geltokiaren ondoan edozein negozio ipintzeko prest primerako baldintzekin. Deitu telefono honetara: 606 39 00 09

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Lagun koadrila batendako 50 metro koadro baino gutxiagoko lokal bat nahiko genuke errentan. 689 37 31 43 (Ander)

Pabiloia. Pabiloia behar dugu errentan Debagoienean. 605 76 98 97

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Zaldibar. Zaldibarren umea eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko emakumezko euskalduna behar da. 670 59 84 32.

Tolosa. Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 606 52 19 92.

Durangaldea. Neska euskalduna eskaintzen da goizetan haurrak zaintzeko (esperientziaduna) Elorrion edo ingurauan. Informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo telefonora deitu edo email bat bidali. Deitu telefono zenbaki honetara: 645 70 10 87 edo idatzi mezu bat: lersun6@hotmail.com

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. 699 54 17 27.

Bergara. Bergaran pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuek deitu 19:00etatik 21:00etara. 654 05 91 77.

Arrasate. Eskoriatza eta Aretxabaletan. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77.

Arrasate. Edo Bergaran. Neska gertu lanerako. Nagusiak edo umeak zaitzen eta garbitasun lanetan. Erreferentziaduna. 636 47 64 92.

Arrasate. Bergara edo Aretxabaletan, neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. 697 20 00 86.

Arrasate. Emakumea gertu umeak eta nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko ere bai. Deitu 943 25 05 72 / 658 70 56 94 telefonora.

Bergara. Bergaran mutil arduratsua gertu nagusiak zainteko. Geriatria ikasketak ditut. Deitu 651 09 04 97 zenbakira.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan. 699 09 46 26.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Tituluduna. 680 77 06 46.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, denetariko garbiketak egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburutan. Esperientziaduna. 626 91 49 04.

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943 25 02 96, 662 58 96 11.

Debagoiena. Honduraseko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, langile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusi zein haurrak zaintzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. 616 84 89 26.

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila: nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketak egiten. Gauez zein orduka. Zaintza ikasketak egindakoa. Berehala hasteko moduan. 685 13 48 63.

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943 25 02 96 / 662 58 96 11.

Debagoiena. Neska gertu lanerako: nagusiak zaintzen, etxeko lanak egin, garbiketak, sukalde zein tabernatan. 610 99 70 46.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, garbitasun lanek egin edo bestelako lanetarako. 722 14 42 86.

Debagoiena. Urte askotako esperientzia duen emakumea, arduratsua, lanerako gertu. Umeak zaindu, etxeko edo tabernako lanak eta etxe, jatetxe zein bestelako garbiketak egingo nituzke. Deitu 943 79 96 25 / 647 10 58 72 zenbakietara.

Debagoiena. Neska arduratsua garbiketa lanak egin (etxe, atari eta abarrak) eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 616 62 85 91 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua ume eta nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. 633 49 62 53.

Debagoiena. Neska gertu ume eta nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Deitu 691 03 25 02 / 943 54 09 41 zenbakietara.

Debagoiena. Neska gertu ume eta nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita garbiketa lanak egiten ere, atari eta abarretan. Erreferentziak ditut. Deitu 636 41 98 14 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita garbitasun lanetarako ere. Deitu 672 70 71 25 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu ume edo nagusiak zaitzen zein garbitasun lanetan jardutеko. Etxean bizi izaten zein bestela. 632 09 72 93.

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. 679 30 65 28.

Debagoiena. Etxeko lanetarako zein pertsonekin jarduteko gertu. Umeak edo adineko pertsonak zaintzeko gertu. Orduka, etxean bertan bizita edo edonola. Etxeak, atariak... Garbitzeko prest. Debagoiena osorako. 699 14 17 38 (Karen).

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi eta lan egiteko. Ospitalean gauez gaixoak zaintzeko. 602 37 14 43.

Debagoiena. Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketak orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoan laguntzeko. 943 71 53 74 / 695 73 87 95.

Debagoiena. Mutila gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita baserriko lanetarako ere. 622 77 60 65.

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzeko gertu nago, baita ospitalean gaixoak zaintzeko ere. 618 13 46 15.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Garbiketan zein nagusi edo umeak zaintzen. Legezko paperak ditut. 672 96 08 22.

Debagoiena. Neska arduratsua etxe, atari eta abarren garbiketa lanak egin zein nagusiak zaintzeko gertu. 616 62 85 91.

Debagoiena. Mutila gertu harakin laguntzaile lanetarako. Esperientzia daukat hezurrak kentzen eta aurrekozinatutan. Edozein lanetara moldatzen naiz. 610 91 33 40.

Debagoiena. Mutila gertu harategian edo sukaldean laguntzaile lanetan aritzeko, baita tabernetan, garbitasun lanetan edo nagusiak zaintzen ere. Esperientzia. 647 15 18 23.

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Eskarmentua daukat hegazti granjatan, biltegian, eraikuntza zein margoketa lanetan. Ordutegi malgua eta edozein herritan lan egiteko prest nengoke. 631 10 57 91.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. 943 79 96 25/ 647 10 58 72.

Debagoiena. Mutila gertu lan egiteko: garbiketak, nagusiak zaindu eta abar. Orduka ere bai. 633 28 81 24.

Debagoiena. Esperientziadun neska edozein motatako lanak egiteko prest. 639 08 86 33.

Debagoiena . Mutila lan bila: peoi, gidari, zaindari eta abar. 651 55 36 29.

Debagoiena. Gaztea lanerako gertu: peoi lanak, gidari lanak. 651 55 36 29.

Debagoiena. Igeltsari, margoketa zein arotz lanak egingo nituzke. Esperientziaduna. Javid. 632 20 19 41.

Debagoiena. Lan bila nabil: garbiketak, banaketak, edo beste edozein lan. Deitu 679 60 08 48 telefonora.

Debagoiena. Mutil gaztea, arduratsua, lanerako gertu. Nagusiak eta ospitalean gaixoak zaintzen edo garbitasun lanetan arituko nintzateke. Etxean bizi izaten edo bestela. Wilber. 618 85 12 85.

Debagoiena. Mutila gertu harakin laguntzaile lanetarako. Esperientzia daukat hezurrak kentzen eta aurrekozinatutan. Edozein lanetara moldatzen naiz. 610 91 33 40.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientzia duena lan bila dabil. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izateko gertu nago edo orduka lan egiteko. 633 49 62 53.

Debagoiena. Prest edozein lan egiteko 13:00etatik aurrera: gaixoak edo adineko pertsonak zaintzen zein atari edo elkarteak garbitzen. Tel. 632 88 27 92.

Debagoiena. Sukaldean laguntzaile lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. Gidatzeko karneta daukat. 663 46 93 60.

Debagoiena. Eraikuntzako ofiziala eraikuntzan lan egiteko gertu; edozein motako garbitasun lanetan jarduteko prest ere bai. Autoa eta gidabaimenarekin. Debagoiena osorako. 639 41 68 38 (Rolando).

Debagoiena. Emakumea gertu orduka lan egiteko. 634 78 19 54.

Debagoiena. Margolari gisa lan egingo nuke. 18 urteko esperientzia. Lehen mailako ofiziala, margoketan. 637 52 89 91.

Debagoiena. Igeltsari, zerbitzari, lorazain edo segurtasun zaintzaile gisa lan egingo nuke. 622 59 92 14.

Debagoiena. Neska gertu orduka, asteburu zein egun osoz lan egiteko. Etxeko lan eta garbiketak egiten edo sukalde laguntzaile. 662 26 71 41.

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko lan bila nabil, 24 orduz edo asteburuetan. 602 12 22 45.

Durangaldea. Neska arduratsua etxeko lanak egiteko edo tarta nagusiak zaintzeko lan bila dabil. Orduka. Esperientziaduna eta erreferentziakin. 648 20 03 70.

Durangaldea. Neska gaztea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketan (portalak, tabernak) zein etxeko lanak egiteko lan bila dabil. 24 orduz, lanaldi osoan edo lanaldi erdian. Erreferentziekin. Deitu 620 82 85 79 telefonora.

Durangaldea. Emakume arduratsua pertsona nagusie laguntzeko eskaintzen da. 24 orduz, egunez, asteburuetan edo jai egunetan. Erreferentzia askorekin. 666 75 21 47.

Durangaldea. Lan bila nabil. 24 orduz, gauetan edo asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziekin. Geriatria kurtsoa egi„ffla. Papelekin. 634 00 82 22.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. Deitu 631 13 22 91 telefonora.

Durangaldea. Egunez edo orduka 10:00etatik 20:00etara nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan lan bila. Esperientziarekin. Deitu 632 15 80 89 telefono zenbakira.

Durangaldea. Emakumea lanaldi erdiz lan egiteko prest umeen edo nagusien zaintzan edo garbiketan. Goiz, arratsalde zein gauez. Esperientzia eta erreferentzia onak. Deitu 636 85 20 59 telefonora.

Durangaldea. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez. Erreferentziekin. Deitu 638 23 37 39 zenbakira.

Durangaldea. Erizain laguntzailea, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 608 46 48 44.

Durangaldea. Emakumea nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan lan bila. 24 orduz edo egunez. Papelekin eta erreferentziekin. Deitu 650 10 18 31 telefonora.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko zein kamarero lanetan aritzeko lan bila nabil. Esperientziarekin eta erreferentziekin. Deitu 630 86 99 21 telefonora eta Andres Arrietarengatik galdetu.

Durangaldea. Lan bila nabil. Edadeko pertsonak zaintzeko edo etxeak garbitzeko. Lanaldi osoan edo erdian. Erreferentziekin. Deitu 650 61 01 94 telefono zenbakira.

Durangaldea. Nagusiak zaintzen zein garbiketan lan bila. Lanaldi osoan, baita gauez ere. 660 70 66 18.

Durangaldea. Emakume arduratsua eta esperientziarekin lan bila dabil. Garbiketan, sukaldari laguntzaile edo zaintzaile, ume zein nagusi. Arratsaldetan. Erreferentziekin. 670 67 46 41.

Durangaldea. Lan bila nabil garbiketan zein umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest, baita asteburuetan ere. 644 63 51 45 / 631 02 29 82

Durangaldea. Asteburuetan umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen mutil gaztea. Janaria egin, garbiketa, paseoak emateko... 22 urte ditut eta arreta soziosanitarioa ikasten ari naiz. Interesatuek, deitu 622 93 72 86 zenbakira.

Durangaldea. Neska euskalduna haurrak zaindu edota partikularrak emateko prest. 661 37 85 29.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lan bila. 632 51 68 61.

Durangaldea. Haur Hezkuntza ikasketak dituen neska euskalduna Durangaldean umeak zaintzeko lan bila. Deitu 625 70 78 31 telefonora.

Durangaldea. Emakumea, nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo gauez. Erreferentziekin. 616 78 80 33 Luz Adilia.

Durangaldea. Neska arduratsua eta erreferentziekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako lan bila. 24 orduz, egunez, gauez. 608 24 85 54.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Edozein ordu eta egunetan. 660 87 53 60.

Durangaldea. Lan bila garbiketan edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Deitu 680 29 66 76 zenbakira.

Durangaldea. Umeen zaintzan, dendari lez, ostalaritzan,... Lan egiteko prest. Deitu 672 69 91 52 telefonora.

Durangaldea. Asteburuetan edo 24 orduz, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 602 12 22 45.

Durangaldea. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo asteburuetan. Deitu 631 02 29 82 telefono zenbakira.

Durangaldea. Emakume euskalduna Durangaldean eta egunean bi-hiru orduz, nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 618 40 58 79 (Izaskun).

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz edo egunez. 631 24 26 07.

Durangaldea. Orduka zein gauez pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 633 93 41 06

Durangaldea. Neska euskaldunak pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketarako eskaintzen du bere burua. Asteburuetan edo astegunetan. Interesatuak deitu telefono honetara: 652 72 02 29.

Durangaldea. Asteburuetan, 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 690 68 73 95.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 644 63 51 45.

Durangaldea. Durangaldean pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Deitu 631 02 29 32 zenbakira.

Durangaldea. Durangaldean 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Deitu 602 12 22 45 telefonora.

Durangaldea. Durangaldean garbiketan, umeak, nagusiak zaintzeko lan bila. Deitu 652 13 00 41 telefonora.

Durangaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. Deitu 631 25 09 98 telefonora.

Durangaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. Deitu 679 53 01 60 telefonora.

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edota garbiketarako prest. Paperekin eta erreferentziekin. Deitu 620 82 85 79 telefonora.

Durangaldea. Esperientziadun neska lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketan. Paperekin. Deitu 602 81 12 63 telefonora

Durangaldea. Neska zaintzan edo dendari lez lan egiteko prest. 24 orduz, egunez edo orduka. Interesatuak deitu telefono honetara: 618 01 61 99

Durangaldea. Pertsona nagusien zaintzan 24 orduko lan bila. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu 608 12 22 45 edo 632 86 92 82 telefonoetara

Durangaldea. Emakumea garbiketan, ume zein nagusien zaintzan lan egiteko eskaintzen da. 24 orduz edo egunez. 672 92 40 83

Durangaldea. Umeak edo edadeko pertsonak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 632 55 69 95

Durangaldea. Bolibiako neska, 24 orduz umeak edo nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Erreferentziak. 692 57 18 71

Durangaldea. Neska arduratsua nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. 682 40 57 91

Elorrio. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! interesa baduzu, deitu: 688 64 06 04.

Elorrio. Neska gazte eta euskalduna, Durangaldean haurrak zaintzeko prest, esperientziarekin. Yanire. 657 77 54 37.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Debagoiena. Kazetaritzako ikasle bat naiz eta karrerako 1go mailako euskara arloa prestatzeko laguntza behar dut. Interesatuta bazaude deitu mesedez ondorengo telefonora. Iosune. 665 71 10 03.

Oñati. Italierako eskolak jasoko genituzke. 685 73 06 80.

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeles eskolak ematen ditut, talde txikitan edo bakarka. Adin guztiak (5 urtetik aurrera). Errefortzua eta hobekuntza. Azterketen prestakuntza ere bai (ket, pet, fce...). Deitu eta informatu konpromiso barik. 606-72 47 10.

Bergara. Magisteritzan diplomatua Lh eta DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest, ingelesa barne. Esperientziaduna. 607 36 98 69.

Durango. Irakaskuntzan esperientzia duen gazte euskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrak emateko prest. Telefonoa: 675 00 79 19 egorrono@gmail.com

Durango. Gaztelera eta literatura azterketetarako klaseak: DBH, Batxilergoa, selektibitatea, erdi mailako eta goi mailako hezketa zikloak. 656 79 15 99.

6. MOTORRA

601. SALDU

Dethleffs autokarabana salgai. 2009ko Dethlefs autokarabana salgai. 70.000 km, 5,9 m luze, 6 pertsonentzat egokitua (lo egiteko zein bidaiatzeko), tb eta antena, plaka solarrak, retrokamara, 800wko transformadora, control cruisse, alarma, toldoa eta 4 bizikleta eramateko aukera. Trukean vw california edo tankerakoren bat ere onartuko genuke. Ibilgailua oso egoera onean dago. Lur Olabarri Etxebarria. 665 72 78 81 / 653 74 58 38. lurolaba@yahoo.es

Rover 45 comfort 1.4 gasolina. 4 ate. Alarma, abs, airbag, pioneer 4x40w irrati-cda, lapurreten kontrako inmobilizadorea. Tomtom one bat opari. Probatu ezazu konpromezurik gabe. Transferentzia nire kontura. Interesatuak deitu telefono honetara: 607 15 24 03.

Furgoneta VW Multivan t4 tdi 2.5. Kanbio automatikoa. 102 zaldi dauzka kondizio honean dago. Kanpinarako prestatuta. 609 48 11 24.

Fiat ducato 2900 salgai. Sei pertsonendako. sei gau sei egun. 2006koa. 66.000km. 669 53 97 03

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Gorbeiako ardi txakur kumeak salgai. Gorbeiako ardi txakur kumeak salgai. Uztailaren 1ean jaiota. 690 20 55 36. Mike

703. EMAN

Artzai txakurrak. Artzai txakur kumeak eskaintzen dira. 616 93 63 51.

Hiru hilabeteko Border collie txakurkumeak ematen dira opari. Hiru hilabeteko border collie txakurkumeak ematen dira opari. Interesatuak deitu telefono honetara: 943 79 75 31.

Katuak opari. Katuak oparitzen ditugu. 606 70 91 18

8. DENETARIK

801. SALDU

Altzariak salgai. Altzariak salgai: ohearen estruktura eta bi mahaitxo: diseinu modernoa, neurriak 1,50m x 1,90m, berriberria dago (urte bete), prezioa 450euro (bere salneurria dendan 1.800euro). Koltxoia: neurriak 1,50m x 1,90m. Prezioa 60 euro. Ikasteko mahai zuria: berriberria dago, prezioa 50euro. Umeen logelarako bost kaxoidun sinfonierra: prezioa 85euro. Banak markako egurrezko apalak: prezioa 150euro. Banak markako mahai baxua: prezioa 65euro. 610 41 55 11.

Autorako segurtasun aulkia. 0-13 kilorako Maxi-cosi etxeko segurtasun aulkia salgai, easyfix oinarriarekin. Quinny, Bugaboo zein bestelako aulkietan jartzeko bi egokigailu ere bai. Prezioa: 100 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 21 37 18.

Autorako umeen aulkia salgai. Autorako umeen aulkia salgai. 0 urtetik 10 urtera. BMW marka, Ixofix sistemarekin. Egoera onean: ondo zainduta eta gutxi erabilita. Merkea. Jabi. 679 17 43 67.

Baserritar jantzia. Mutikoarendako baserritar jantzia salgai. Urtebete eta 4 urte bitartekoa. Alkandora zuria, blusoi beltza, fraka, galtzerdiak, albarkak eta txapela. 40 euro. Interesatuok bidali mezua edo deitu zenbaki honetara: 653 72 22 54, marysea15@hotmail.com

Bikien karrotxoa salgai. Easywalker markako bikien aulkia salgai, kapazo batekin. Interesatuak deitu telefono honetara: 676 73 02 76.

Chico markako karrotxoa salgai. Chico markako karrotxoa salgai. Prezioa 50euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 610 41 55 11.

Gas galdarak salgai. Junkers etxeko gas galdara daukat saltzeko. Ceraclass excellence zsc 35-3 mfa. Potentzia handiko eta ia berria. Negu bakar batez egon da lanean. Erdi-prezioan (1.000 euro). 685 72 83 24.

Konsola salgai. Sega mega drive konsola salgai. Hiru jokurekin. Interesatuak deitu telefono honetara: 652 71 74 48.

Nintendo DS Lite. Kolore zuria. Osagarri guztiekin (zorroa, etxerako zein kotxerako kargagailuak...). Egoera oso onean dago. Oso gutxi erabilia. 100 euro. 670 52 58 74

Soinu handia. Soinu handia salgai. Delicia etxekoa, gorria. Piano itxurako tekladuna. 80 baju. 165 euro. 697 25 92 48

Trialeko botak salgai debagoienan. Botak hebo zurixak dira, egoera onian eta gutxi erabilita, 37 zenbakia. 55 euro 630 66 07 19.

Ume bizikleta salgai. Sei urtera arte. Merkea. Interesatuak deitu honetara: 679 17 43 67.

Umearendako aulki tolesgarria. Castle etxekoa. 30 euro. 606 78 30 30.

Umeendako karroa. Mutsy 4 rider modeloa. Beltza. Euritarako plastikoarekin. 677 52 56 27.

VW T4 furgonetarentzat altzaria. T4 furgonetan (beste batzuentzat ere balio lezake) ohea egiteko balio duen altzaria saltzen da. Gauzak gordetzeko edukiera handia. Koltxoi barne. 150 euro. 667 95 73 16

Yamaha clavinova pianoa salgai. Piano ikasketetako oso egokia. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzen dira, edo ikusi eta probatu daiteke. Interesatuek deitu 20:30etatik aurrera. Negoziagarria. 653 73 78 58.

Xurgagailua. Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. 659 62 02 49.

Xurgagailua. Ap7010 modeloa. 2.000 wattiokoa. 30 euro. Orbegozo etxekoa. 606 78 30 30.

802. EROSI

Antzinako gauzak jaso edo erosi. Antzinako gauzak jaso edo erosten dira: bizikletak, josteko makinak, argazki kamarak, idazteko makina... Egoeraren arabera ordaintzen da. Emailez edo watsapp bidez argazkia bidali edo deitu. 678 47 43 54.

Baserritar jantzia. Neskatilaretzat 18 hilabeteko neurriko baserritar jantzia erosiko nuke. 686 21 02 23

Klarinetea erosi nahiko nuke. Salgai baduzu deitu 626 43 25 03 zenbakira.

Negutegi txikia erosi nahi dugu. Bigarren eskuko negutegi txikia erosi nahi dugu, 4x12 gutxienez. Txikiagoa ere izan daiteke. Interesatuak deitu telefono honetara: 695 50 83 55.

803. EMAN

Bidali zure ordenagailua Boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviako eskoletara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Boliviako bigarren mailako eskoletara. 655 71 76 66.

Bidali zure ordenagailua Perura. Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bidaliko dugu Peruko eskoletara. 655 71 76 66

804. HARTU

Bizikletak. Bizikleta bat atzeko moduan badaukazu, nik jasoko dizut. Berdin da zein egoeratan dagoen eta zein motakoa den. Jasotzera joango nintzateke. Inaki. 699 06 23 95

Butanozko berogailua. Martxan dagoen butanozko berogailua hartuko nuke. Ordaintzeko prest nago. 658 71 44 37 / 943 76 40 87

Mutikoarendako arropa. 11-12 urteko mutiko batentzat erropa falta zait. Era batean edo bestean eskertuko da. Deitu telefono zenbaki honetara: 635 00 69 26..

806. GALDU

Argazki kamara Arrasaten. Sony DSC-W35 kamara digitala galdu genuen urriaren 7ko asteburuan, Munar eta Arimazubi inguruan. Familia argazkiak daude bertan. Aurkitu duenak dei dezala zenbaki hauetara, mesedez. Aurrez esker mila. Roman. 696 23 90 74, 679 07 72 65

Autobuseko txartelak. Txartel zorroa galdu nuen Lurraldebus autobusean, urriaren 5ean, egubakoitza, 12:00etako linean. Barruan autobuserako txartelak dauzka. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. 943 76 52 39,

Disko gogorra Aretxabaletan. Disko gogorra, Toshiba markakoa, galdu nuen urriaren 11ko goizean, Aretxabaletan, Azbe eta Pagalday pentsuak inguruan. Ume argazkiak daude bertan, norbaitek topatu badu mesedez deitu zenbaki honetara. Eskerrik asko. 658 72 52 33,

Patinetea Arrasaten. Urriaren 17an Oxelo etxeko patinetea galdu nuen Arbolapetan. Norbaitek aurkitu badu dei dezala zenbaki honetara: 669 31 88 44,

Telefonoa Aretxabaletan. Telefonoa galdu nuen Aretxabaletan, San Migel jaietan. Nokia E72 modeloa, beltza eta zilar kolorekoa. Aurkitu duenari eskertuko nioke SIM txartela besterik ez bada itzultzea. Eskerrik asko. 608 17 00 00

Zilarrezko pultsera. Arrasaten zilarrezko pultsera galdu nuen urriaren 21ean, domeka. aurkitu baduzu deitu mesedez telefono honetara: 664 35 75 15

807. AURKITU

Ingeleseko liburuak. Orain dela bi aste, urriaren 16aren inguruan, gasteizko autobus geltokian ingelesa ikasteko liburu batzuk topatu nituen lurraldebusaren makina gainean. 644 59 03 23.

Bizikleta Aretxabaletan. Umeen bizikleta txiki bat aurkitu da Iralabarri plazan. Galdu duenak dei dezala telefono honetara 17:00tik aurrera: 679 86 67 38.

Panpina aurkitu Aretxabaletan. Zezen itxurako panpina handia topatu nuen urriaren 10ean, Aretxabaletako Iralabarri plazan. Udaletxera eraman nuen, bertan galdetu.

Motxila aurkitu Aretxabaletan. Motxila bat aurkitu da Iralabarri plazan. Galdu duenak dei dezala telefono zenbaki honetara 17:00tik aurrera: 679 86 67 38.

9. HARREMANAK

902. HARREMANAK

Ekologista zein feministeei. Kaixo lagun! Atxabaltako edota inguruko ekologistak eta feministak ezagutu nahi ditut lagunak egiteko, elkarrengandik ikasteko eta ekimenak aurrera eramateko. Interesatuok idatzi mezu bat putoogle@gmail.com helbidera edo deitu 644 59 03 23 telefono zenbakira.

Ingeles eta frantses mintzapraktika. Ingeles mintzapraktika eginen nuke frantsesaren truke, astean bi orduz. Frantsesa jatorrizko hizkuntza dut. Deitu 630 05 91 98 telefono zenbakira.

Etxebila higienizinak
943-44 61 66
ALOKAIRUAN
PASAI DONIBANE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 600€
TRINTXERPE 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Hutsa. 600€
ASTIGARRAGA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 650€
AMARA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Parking pribatua. 650€
AMARA Ekaina bitarte. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 590€
AMARA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Polita. 700€
AMARA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. Oso ederra. 780€
ZENTROA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora begira. 700€
SALMENTAN
AMARA. Altuak. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 205.000€
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Hegoa. 198.000€
AMARA 2 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Terraza. Oso ongi dago. 215.000€
AMARA Madrid hiribidea. 95 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela. Eguzkitsua. 280.000€
AMARA Madrid hiribidea. Altua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 220.000€
GROS 80m2. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Igogailua. 330.000€
ZENTROA Autonomia. Kalera. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 276.000€
ZENTROA Prim kalea. Atiko berritua. Lehioak. Igogailua. 249.420€
EGIA Mandasko Dukea. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Balkoia. 246.350
EGIA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Bistak itsasora. 165.000€
ATEGORRIETA Hondartzatik 10 minutura. Apartamentua. Kalera begira. 138.200€
INTXAURRONDO Pisu ederra. Oso bista politak. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 215.000€
MARTUTENE Polita. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kanpora begira. Parkinga. 137.630€
PASAI DONIBANE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 155.660€
LEZO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 146.000€
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Aia. Baserria berritu berria. 125 m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 1.10.000 m2. 50.000.000 pezeta.
Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.
Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. **150.000 euro!.**
Bergara. San Lorentzo auzoan. Duplex bat, estreinatzeko, garaje plaza eta guzti. 45.000.000 pezeta. Prezio Berria!!
Donostia. Amara-Amezketa kalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.
Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. 39.000.000 pezeta.
Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.
Zarautz. Itxasmendi. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta terraza. Argitsua. Prezio berria: 46.000.000 pezeta.
Zarautz. Azken Portu. 92 m2 ditu. 4 logela, Terraza, Trastelekua eta Igogailua. Erreforma behar du. Prezio Berria. 54.000.000 Ptas.
Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, Terraza, Trastelekua eta Garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96



Karl Marxen hilarrian kokatu dute QR kode bat. | WTFQRCODES.COM

QR-a edonon, hilarrietan, zakurretan, elastikoetan... baina noiz arte?

Adituek diote hedatu diren bezain azkar desager daitekeela erabilera

JON BEREZIBAR | ARRASATE

QR kodeak badute dagoeneko lekua eta presentzia gure bizitzetan baina zabalkundeak ia mugarik ez duela ematen du. Hilarrietan, etxeko katu ala zakurretan edo jatetxeetan ikustea, geroago eta ohikoagoa da.

Konplikazioa eragozpen

Hegaldietako txarteletan ala prentsan bertan aspaldiko ohitura da informazio areagotu QR bidez ematea baina gaur egun eskaintzak ia ez du mugarik eta zakur eta katuen plakan dagoeneko kode honekin saltzen dituzte, galduz gero informazio azkar eta erraza emateko. Espezialistak hala ere, hasi dira ohartzen modu desegokian egiten dela erabilera askotan batez ere marketing eta publizitate helburuarekin erabiltzen badira. Hasierako nobedadea pasata, gaur egun, indiferentziarekin hasi da jendea erantzuten. Askok heriotza-data ere ezarri diote QR kodeari eta erabilpena azkartu ezean urte gutxitan zabaldu bezain arin desagertuko direla aurreikusi dute aditu askok eta askok..

Adin txikikoei NA elektronikoa eskatzea ezarri gura dute

J.B. | ARRASATE

Datuen Babeserako Espainiako Agentziak webgune eta sare sozialetan alta emateko 14 urtetik beherakoentzako Nortasun Agiri Digital elektronikoa erabiltzea ezarri gura du, gurasoen onespenik gabeko erabilpenik egon ez dadin. Hain zuzen ere, Espainiako legediak galarazi egiten du 14 urtetik beherako edozeinen datuak jaso ala erabiltzea eta adin txikikoek soilik eman ahal dituzte guraso ala tutore legalen baimenarekin. Hala eta guztiz ere, 14 urtetik beherako haurrentzako sare sozialen kasuan alta prozesua nahiko korapilatsua izaten da eta akats legal ugari egoten dira prozesuan. Espainiako Agentziak proposatzen duena da modu periodiko baten sare sozialetan adin txikikoak sartzerakoa, aldian behin, NA elektronikoa erabili behar izatea, kontrol neurri bezala. Era berean, Tuenti eta Facebooki exijitu diete erabiltzaile hauen inguruan dituzten neurri eta erabakien berri lehenbailehen eman dezatela, fidagarritasunaren alde.

Kargadoreari agurra gertu, zientzialarien arabera

Argia jaso eta emateko gauza diren molekula fluoreszenteekin dabiltza lanean zientzialariak

J.B. | ARRASATE

Massachusetteseko ikerlari talde bat argi naturala eta artifiziala jaso, biltegiratu eta emititzeko gauza diren molekulekin dabil lanean. Teknologia horrek bateriaren ia erabateko aurrezpena ekarriko luke. Molekula horiek argia birziklatzeko ahalmena daukate eta pantailen atzekaldean ikusten den argi zuria erabiliko lukete horretarako, pantailek emititzen duten argiaren %96a galdu egiten baita gaur egun. Pantailak berak telefonoaren bateria osoaren %90 kontsumitzen du, gainera.

Argia, elektrizitate

Giza begia atzemateko gauza ez den molekulak kokatzen dira paintailan bertan eta argia jaso eta biltegiratzen duten eguzkizelda batzuen bitartez argi hori energia elektriko bilakatzeko. Dispositiboak argi naturala jasoz gero eraldaketarik ez litzateke beharko eta gailuak ez luke elikatze elektrikoaren beharrik izango argi naturalak beharrezko energi hori baitakar. Teknologia oraindik garapen prozesuan dago eta oraindik ez dakite nola erabiliko den gailu zehatzetan baina zehazten dute erabateko aurrezpena lortzen ez bada ere, gailuetako pantailen efizientzia energetikoan asko lagunduko duela aurkikuntza berri honek. Pantailek igorritako argiaren %8 asko jota bakarrik heltzen da giza begietara, beste energia guztia bero modura galtzen da. Normalean pantailaren atzetik datorren argi zuri bidezko argiztapen batekin lortzen da pantailen argiztapena eta hor galtzen da aipatutako energia guztia. Hori berrerabili ahal izatea planteatzen du ikerketa ildo berriak eta teknologia guztiz garatuta eta argi naturala erabilita, gailuak ia kargatzeko beharrik ere ez izatea da lortu gura dena. Bateriaren aurrezpen handia ekarriko duenik ez da zalantzan jartzen. Sortzen den argiak ere argiztapen handiko egoeretan garbitasun eta irakurgarritasun ona bermatzen du. Garapenak orain arteko abiadan jarraitzen badu, espero dute molekula horiek dituzten lehen pantailak bi urte barru egongo direla merkatuan.

Kostu txikiko smartphone-en uholdea etorriko da aurki

J.B. | ARRASATE

Krisi ekonomikoak eta eskaintzaren handitzeak kostu txikiko smartphoneen ugaltzea ekarriko du datozen urteetan, baita gurean ere. Low-cost telefono inteligenteen susperraldia hasi da Asian eta Ekialdeko Europan eta gainontzeko herrialdeetara hasi da hedatzen eskaintza zabal zein merkea. Joera ikusita, lasterketan lehenak kokatzeko apustuak egiten hasi dira Nokia, ZTE eta Xiomi.

Asia nagusi

Asia da momentuz merkaturik handiena eta aurten 50 milioi dispositibo baino gehiago saldu dituzte. Atzetik dauka Latinoamerika, 10 milioiko kopuruarekin. Neurketa hau egiteko 116 euro baino gutxiago balio duten Android sistema darabilten gailuen salmenta hartu da kontuan.

Prestazio guztiak

Printzipioz, gailu merkeek garestiek adinako espezifikazio teknikoak dituzte, pantaila ukigarria eta datu konexioarekin. Asian badaude, hala ere, 2G konexioa eskaintzen duten zerbitzuak. Hala ere, halako gailuek erresoluzio txikiko pantailak dituzte, esate baterako, eta bigarren eskuko osagaiak. Honela, zenbait kasutan 65 euro inguruko kostua daukaten gailuak lortzen dituzte, prozesatzaile geldoekin.

ZTE Skate Pro smartphone 'low-cost'-a. | VIDEODUEL.RU

Messenger-a etengo du Microsoftek astean zehar

J.B. | ARRASATE

Hurrengo astean zehar Messenger zerbitzua etengo dute Microsoft Live Messenger barruan Skype-en erabilera sustatzeko. Jakinarazpen ofizialik ez da egon momentuz baina informazio ez da gezurtatu Microsoften partetik.

Aurrerantzean Skype zerbitzuaren barruan integratu gura dute orain arte Messenger zena eta azken hilabeetan erabiltzaileak batetik bestera migratzeko sustapen lanetan ibili dira.

Honela, Microsofteko erabiltzaileei automatikoki sortuko zaie kontua Skype aplikazioan eta mezularitza zerbitzuak eskaintzen dituen aukera guztia izango dituzte erabiltzaile berriek. Kontrara, honezkero Skypen erabiltzaile direnek zerbitzu gehitu hori izango dute euren Skype ala Facebook kontuekin batera. Bi aldeen erabateko integrazioa aurkitzea da helburua eta etorkizunean Messenger ezagun eta oso zabalduaren desagerpena etorriko litzateke ezinbestean.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO

Nirea handiagoa da!

Ayyy gizonaren egoa mundua bera baino zaharragoa den kontu bat da. Gizonok beti hitz egin dugu zentimetroen inguruan, zenbat neurtzen dizu? Nirea handiagoa da!... eta tankera horretako esaldiak gizon artean kontu zaharrak dira. Egia esateko, baziren urte batzuk tamainaren eztabaida entzuten ez nuela baina aurreko egunean festa bateko hizketaldietako batean horren inguruan hitz egin genuen.

Bertan genuenon artean batek arro esan zuen, zurea oso txikia da nirea askoz handiagoa da eta emazteak eskertu egiten du. Beste batek ez zekien zein tamainakoa zuen bereak, eta hala ere, emaztea pozik zegoen. Orduan non dago gakoa? Guztia tamaina al da?

Ez dut uste, etxeko bi telebistak txikiak dira, handienak 29 hazbete ditu eta egungo 42, 50... eta tamaina horretako telebistekin alderatu ezkero nirea Liliputen erosi dudala dirudi. Hala ere, festan esandakoa errepikatuko dut, tamaina baino garrantzi gehiago dauka bertan ikusten dugun.

Hortaz, ahalik eta telebista handiena erosi beharrean, kalitatezko edukiak aukeratu eta ederki pasako duzue. Dena ezin da zentimetroetan neurtu!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 12

Harmailatik

Asteburuko kirol kontuen errepasoa eta Behobia-Donostia lasterketaren laburpen zabala. | **22:01**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:10 Zorion Agurrak
13:15 Onein
13:45 Gipuzkoa kultura
14:15 Ekogune
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Zorion Agurrak
15:13 Esatea libre
16:28 Ikusmira
16:46 Berriak
17:06 Eguraldia
17:09 Onein
17:37 Ikusmira
18:05 Beranduegi.tv
18:25 Ekogune
18:55 Goierri Creation Center
19:20 Ikusmira
19:48 Zorion Agurrak
19:53 Berriak
20:13 Eguraldia
20:16 Magazinea
21:01 Gurean gaur
22:01 Harmailatik
22:46 Berriak
23:06 Eguraldia
23:09 Magazinea
23:54 Harmailatik
00:39 Berriak
00:59 Eguraldia

MARTITZENA 13

Gurean Gaur

Nagore Uriartek aurkeztutako saioa, tokiko telebistek egunero elkarlanean egindako albistegia. | **21:00**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Harmailatik
15:53 Onein
16:17 Kontzertua: Txistu, soprano eta organoa
16:52 Berriak
17:12 Eguraldia
17:15 Esatea libre
18:30 Harmailatik
19:15 Gipuzkoa kultura
19:45 Zorion Agurrak
19:50 Berriak
20:10 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
22:00 Berriak
22:20 Eguraldia
22:25 Magazinea
23:10 Jaiak: Urriko azken astelehena
00:04 Berriak
00:24 Eguraldia

EGUAZTENA 14

Ekogune

Donostiako Aquariuma eta bioeraikuntzak izango ditu ardatz Julen Iriondok gidatutako saioak. | **22:00**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Hamaika.bit
13:48 Berbetan
14:24 Ikusmira
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 Onein
16:05 Harmailatik
16:50 Berriak
17:10 Eguraldia
17:12 Ikusmira
17:39 Zorion Agurrak
17:42 Beranduegi.tv
18:02 Bertso saioa
19:53 Berriak
20:13 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
22:00 Ekogune
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:55 Magazinea
23:40 Gipuzkoa kultura
00:10 Berriak
00:15 Eguraldia

EGUENA 15

Gipuzkoa Kultura

Hitzak, tratu txar emozionalen gaineko antzezlanaren inguruko erreportaia aste honetako saioan. | **22:00**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Ekogune
13:45 Hamaika.bit
14:18 Onein
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 Garaien Oiartzuna
16:26 Ekogune
16:56 Berriak
17:16 Eguraldia
17:19 Garaien Oiartzuna
18:04 Hamaika.bit
18:37 Planik bai?
18:57 Beranduegi.tv
19:22 Zorion Agurrak
19:27 Berriak
19:47 Eguraldia
19:53 Planik bai?
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
22:00 Gipuzkoa kultura
22:30 Planik bai?
22:50 Berriak
23:10 Eguraldia
23:13 Magazinea
23:58 Ekogune
00:28 Berriak
00:48 Eguraldia

EGUBAKOITZA 16

AsteOn

Cañada del Realen dagoen El Gallinero ijitoen herrixkako errealitateari buruzko erreportajea. | **22:00**

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Gurean gaur
13:40 Zorion Agurrak
13:45 Onein
14:12 Ikusmira
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 Ikusmira
15:56 Gipuzkoa kultura
16:26 Beranduegi.tv
16:46 Zorion Agurrak
16:51 Berriak
17:11 Eguraldia
17:14 Planik bai?
17:34 Ekogune
18:04 Garaien Oiartzuna
18:49 Beranduegi.tv
19:13 Zorion Agurrak
19:17 Berriak
19:37 Eguraldia
19:40 Planik bai?
20:00 Goierri Creation Center
20:25 Gipuzkoa kultura
21:00 Gurean gaur
22:00 AsteON
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:53 Esatea libre
00:08 AsteON
00:38 Planik bai?
00:58 Berriak
01:18 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Oñatiko gaztelekuan Txarango eta D-Pintxos taldeak ikusteko sarrerak

Reggae, dub, musika latino-amerikarra eta erritmo autoktonoak fusionatzen dituzte Bartzelonako Txarango taldekoek. Beraiekin batera, Legazpiko D-Pintxos taldea izango da. Sarrerak lortzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo bidali mezu bat *irratia@goiena.com* helbidera.

'Gigantes y cabezudos' zarzuelako sarrerak zozketatuko ditugu

Sarrerak hilaren 14ean egingo den saiorako izango dira eta horiek eskuratzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo bidali mezu bat *irratia@goiena.com* helbidera. Zarzuelaz gain gehiago jakiteko, *Gigantes y cabezudos* ikuskizunerako lan egin duen jostunetako batekin izango gara.

Marga Garmendiarekin baserritarren azokaren gainean hizketan

Azaroaren hirugarren asteburuan, hilabetero bezala, baserritarren azoka izango da Arrasateko Seber Altube plazan. Baserritarren azokaren inguruan hitz egiteko eta azken orduen berri izateko, Marga Garmendia-rekin, azoka antolatzearen arduradunarekin, izango gara Arrasate Irratian, 107,7 uhinetan.

TELE-ALBISTEAK

El Gallinero ijitoen herrixkako bizitza ezagutuko dugu 'AsteOn' saioan

Herrixkako bizitza islatzen duen erakusketa egon da Mariaren Lagundian

GOIENA | BERGARA

Aste honetako *AsteOn* saioan, Madrilgo Cañada del Realen dagoen El Gallinero ijitoen herrixkako errealitateari buruzko erakusketa ikusiko dugu.

Bergarako Mariaren Lagundiako 2. mailako ikasle eta irakasleak El Gallineron izan ziren otsailean boluntario moduan hango umeekin lan egiten eta asteburu honetan, azaroaren 8tik 11ra 33 ume etorri dira Bergara. Neska-mutikoen bisitarekin batera El Gallineron bizi duten errealitea herrira zabaldu nahi du Mariaren Lagundia ikastolak.



Erakusketako argazkia. | SIRO LOPEZ

Duintasuna eta edertasuna

Hori horrela, *Vida en los Bordes. Miradas al y desde El Gallinero* izeneko argazki erakusketa ibiltaria ekarri dute ikastolara. Hainbat areto bisitatu ostean Bergarara iritsi den nazioarteko argazki erakusketak herrixkako "duintasuna eta edertasuna" erakustea du helburu. Hamalau artisten lana egon da ikusgai zapatura arte.

Donostiako Aquariuma eta bioeraikuntzak 'Ekogune' saioan

Josu Jauregi bioeraikuntza aitzindariarekin egongo da aste honetan Julen Iriondo kazetaria

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

"Belaunaldi berriek gutxiagorekin ere ondo bizi daitekeela ikasi beharko dute", Josu Jauregi bioeraikuntzan aitzindariaren esaldia da. Geobiologia eta ekologia oinarritzat hartuta, ahalik eta eraikin jasangarrienak egitea da larrauldar honen apustua eta guzti horren atzean filosofia eta bizitza era baten apustua dagoela uste du. Jauregikin egon da aste honetan Julen Iriondo kazetaria *Ekogune* saioan.

Moluskua. | AQUARIUM

Moluskuak eta gizakia

Jauregi aitzindariarekin bioeraikuntzaz hitz egiteaz gain, Donostiako Aquarium-ean egon da Iriondo *Moluskuak eta gizakia* erakusketa ikusten.

Donostiako Aquariumak eta AZTI-k, itsas eta elkagaien zentru teknologikoak, historian zehar gizaki eta moluskuen arteko harremana aztertzen duen erakusketa antolatu dute urtarrilera arte.

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Malen Altube Sedano
Azaroaren 17an, 8 urte. Zorionak, Malen. Egun zoragarria pasa dezazula. Aita, ama eta Alaitzen partetik.

OÑATI
Ekain Galparsoro Galdos
Azaroaren 16an, 7 urte. Zorionak, maittia, zure urtebetetzean, Irati, Bixkor, aitatxo eta amatxoren partetik. Muxu potolo-potolo bat.

OÑATI
Zihara Rubio Markuleta
Azaroaren 16an, 6 urte. Zorionak, txiki, familia danaren partetik.

BERGARA
Manex Balentziaga Galfarsoro
Azaroaren 16an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Azkenean heldu da zure eguna. Zu zera etxe honetako piratarik handiena. Sara, ama eta aita eta guztion partetik. Ondo pasatu eguna.



ARRASATE
Julen Parra Matilla
Azaroaren 16an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran ospatu egun berezi hau, dotore dotore korbata eta guzti! Kiloka patxo handi-handi, etxekoen eta laguntxo guztien partetik. Muxutxuek!

BERGARA
Irati Olabarria
Azaroaren 15ean, 11 urte.Zorionak potxola! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Etxekoen partetik eta bereziki Eider eta Enekok.

OÑATI
Kimetz Korta Iñarra
Azaroaren 15ean, 3 urte. Zorionak, pirata! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat etxeko danon partetik.

ARRASATE
Txomin Belategi Bidaburu
Azaroaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, aita!Patxo handi bat, marubizkoa, gure partetik! Iradi eta Haitz.

ARRASATE
Maddi eta Goiatz Belategi Galdos
Azaroaren 15ean, bi urte. Zein azkar igaro den! Primeran pasatu eta jaso muxu goxo bana. Eta Lorea, Aratz, Hodei, Markel eta Izadiren partetik txokomarrubizko muxu bana.

OÑATI
Oier Yaniz
Azaroaren 15ean, 10 urte. Zorionak, mutiko handi! Oso ondo pasatu zure eguna. Patxo pila bat familixa danaren partetik, batez be anaia eta lehengusuek. Muak!

OÑATI
Kepa Lopez Lasa
Azaroaren 15ean, 7 urte. Zorionak, Kepatxo! Egun polita pasa dezazula etxeko guztien partetik!

BERGARA
Ane Mujika Agirre
Azaroaren 15ean, 7 urte. Zorionak, panpoxa!

BERGARA
Amets Urbina Olaso
Azaroaren 14an, 6 urte. Zorionak, Amets! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo bat familixa danaren partetik.



ARRASATE
Arrate Bergaretxe Astigarraga
Azaroaren 14an, 4 urte. Zorionak gure etxeko erreginari, bereziki zure ahizpa Saioa eta etxeko guztion partetik.

ARRASATE
Naroa Kortabarria Maskariano
Azaroaren 13an, 6 urte. Zorionak, potxola! Muxu handi bat etxeko printzesari; Uxue, aitatxo eta amatxo.

ARRASATE
Tomas Sanchez
Azaroaren 13an, 90 urte. Etxekoen partetik zorionak eta oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean.

OÑATI
Lier Esnaola Osinaga
Azaroaren 13an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Azkenian bete dittuzu hiru urte! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo pillia etxeko danon partetik.



ARRASATE
Maren Alonso Lopez
Azaroaren 13an, 6 urte. Zorionak, maitia! Ederto ospatuko dugu bazkarian egun berezi hau, bihotza. Txokomarrubizko muxu potoloak. Etxekoak, Beñat, aitatxo eta amatxo. Maite zaitugu, printzesa!

ARRASATE
Amalur Arizabaleta Rodriguez
Azaroaren 12an, 9 urte. Zorionak gure neskatila politenari! Egun oso ona pasatzeko asmoa daukagu zurekin eta la- guntxoekin. Segi hola, maitxia. Asko maite zaitugu. Etxekoak.

ARETXABALETA
Alaitz Santamaria Lopez
Azaroaren 12an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna etxeko guztien partetik!



OÑATI
Iraide Loiti Palacios
Azaroaren 12an, 6 urte. Zorionak gure familiako printzesari, eta txoko-latezko,marrubizko eta beste mila gustuzko muxu handiak familia guztiaren partetik, batez ere Alaitz, Lorea, Ion, Ane eta Unaxek.

ARRASATE
Alaitz Ormaetxea Heriz
Azaroaren 11n, 7 urte. Zorionak, potxola! Besarkada eta muxu potolo bat familia osoaren partetik.

LEINTZ GATZAGA
Maren Urrutia Fernandez
Azaroaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, printzesa, zure guraso eta aiton-amonen partetik. Espero dugu urtebetetze egun zoragarria igarotzea. Mila muxu eta zorionak.



ARETXABALETA
Silvi Carrancio
Azaroaren 11n, urtebetetzea. Zorionak zure 77. urtebetetzean, zure seme eta biloben partetik. Muxu handi bat eta ondo pasatu eguna!

ARETXABALETA
Iker Bernal
Azaroaren 10ean, 30 urte. Zorionak eta urte askotarako, guapo! Muxu handi-handi bat etxekoen partetik.

BERGARA
Aner Larrea Gantxegi
Azaroaren 10ean, 4 urte. Zorionak, Aner! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea eta muxu potolo bat etxekoen eta bereziki Nora eta Unaxen partetik. Asko maite zaittugu, pottoko!

ARRASATE
Oier eta Iraia Beresaluze Pastor
Azaroaren 10ean, urtebete. Zorionak, bikote! Zapatuan alai ospatuko dugu zuen urtebetetze eguna. Muxu goxo pilo bat etxekoen partetik.

BERGARA
Maika Jaso
Azaroaren 10ean, 24 urte. Zorionak Leire, Oier, Ane eta beste guztien partetik.

ARRASATE
Ixiar Okina Altube
Azaroaren 10ean, 8 urte. Zorionak, maitia. Laztan handi-handia eta ondo-ondo pasatu. Manex, aitite-amamak eta gurasoak.

ARRASATE
Deiane Barandiaran
Azaroaren 9an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat zure familiaren partetik. Maite zaitugu.



ARRASATE
Monica Jurado
Azaroaren 9an, 17 urte. Zorionak, Monica Jurado! Egun ona pasatu zure egunien eta aprobetxatu asteburua ikasteko, azterketak badatoz-eta... Lur-eko kideen partetik.

OÑATI
Beñat Oleaga Mugarza
Azaroaren 8an, 3 urte. Zorionak, Beñat! Ondo pasatu zure eguna laguntxuekin eta familixakuekin! Patxo handi bat eta belarrittik hiru tirakada.

OÑATI
Izar Kortabarria Suarez
Azaroaren 8an, 7 urte. Zorionak, Izar. Ondo pasatu eta opari asko jaso zure egunian, familixa osuaren partetik.

ARETXABALETA
Nahia Aguirre Barquero
Azaroaren 8an, 5 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzia! Patxo handi bat etxeko danon partetik!

ARETXABALETA
Liher Moneo Quirós
Azaroaren 8an, 8 urte egiten ditu gure kapitainak, ondo-ondo pasatu, familia osoaren partetik eta muxu potolo bat!

ARETXABALETA
Beñat Olabe eta Ane Aguilar
Azaroaren 5ean, 19 eta hiru urte. Zorionak zuri, zorionak beti... Ondo-ondo pasatu eguna etxekuen partetik!

OÑATI
Maia Olalde Galdos
Azaroaren 4an, 8 urte. Zorionak, potxola! Patxo handi bat eta zortzi belarri-tirakada. Ondo-ondo pasatu zure egun handi honetan.

Zorionak!

Internet
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

JAIOTAKOAK

Alex Gomez Garrido

Arrasate. 3,760 Kilo. Azaroaren 1a. Gurasoak: Aitor eta Ibone. Argazkian, Alex jaioberria.

Ibai Herrero Arrondo

Bergara. 3,660 Kilo. Azaroaren 1a. Gurasoak: Ainhoa eta Javi. Argazkian, Ibai jaioberria sehaskan lo.

Naia Ibarzabal Aranzabal

Bergara. 3,450 Kilo. Azaroaren 5a. Gurasoak: Aitziber eta Mikel. Argazkian, Naia sehaskan lo.

Ani Lizarazu Gartzia

Amorebieta-Etxano. 3,120 Kilo. Azaroaren 4a. Gurasoak: Larraitz eta Iñigo. Argazkian, Ani jaioberria sehaskan.

Oxel Lizarralde Inurrategi

Oñati. 3,370 Kilo. Azaroaren 7a. Gurasoak: Saioa eta Gorka. Argazkian, Oxel amaren besoetan.

BABESLEA

%10eko deskontua familia ugarientzako

Arropa eta zapatetan

tipi tapa

Oinetakoak
Arropa
Jostailu hezigarriak

Otalora Lizentziaduna 25
ARRASATE
Tel.: 943 79 17 47
tipitapa@hotmail.es

Jarraitu gaitzazu Facebooken:

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

Letaginak / Nuen		Txori mota / * Oñatiko elizatea		Emakume izena / Apaingarri-ez hornitua	
Sabela / Presio unitate					
Zelako / Sagar prentsa		Mortxila / Gipuzkoako herria			Irudi geometriko
			1 eta 50 / Zuloaren erdian		
Hegazti mota / Joan den urtean					
		Zornatu / Rutenioa			
Koruari dagokio / Begira			Uribe Kosta / Röntgen		
	Ipar Euskal Herrian, eskumutur				

LUMA /ARGAZKIA: GUREGIPUZKOA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





SUDOKUA

						9		4
	4	2	5		8	3		7
		6			2			
	5		2		3	8		
9	3			8	4	5		
	8			5	9	6	4	
	1			4		2	3	
			3					
8	2							

HIZKI SALDA

Topa itzazu Hegoaldeko Europako lau herrialde.

H	I	O	I	P	J	L	X	K
P	O	R	T	U	G	A	L	J
T	B	J	A	K	S	E	K	N
T	H	K	L	L	N	I	Z	K
O	E	L	I	B	Z	O	K	P
E	S	P	A	I	N	I	A	K
H	W	G	K	B	D	S	Z	M
K	T	L	T	K	B	O	F	U
G	R	E	Z	I	A	S	I	A

HIEROGLIFIKOA

Euskal Herriko biztanlegoa: 1.503.830,5 pertsona...



SOLUZIOAK

S	O	■	U	K	A	R	A	I	
K	O	R	A	L	■	U	K		
I	A	Z	■	O	L	D	U		
L	E	R	T	X	U	N	A		
D	O	L	A	R	E	I	L		
■	N	■	B	O	R	L	A		
A	P	I	R	T	■				
N	E	U	K	A	K				
A	■	O	■	B	■				

A	I	S	A	I	Z	E	R	G		
U	F	O	B	K	T	L	T	K		
M	Z	S	D	B	K	G	W	H		
K	A	I	N	I	A	S	P	E		
P	K	O	Z	B	I	L	E	O		
K	Z	I	N	L	L	K	H	T		
N	K	E	S	K	A	J	B	T		
J	L	A	G	U	T	R	O	P		
K	X	L	J	P	I	O	I	H		

1	5	4	7	6	9	3	2	8
8	9	7	1	2	3	5	6	4
3	4	6	5	3	2	7	9	8
6	3	2	5	4	8	9	1	7
3	4	6	9	7	4	8	1	2
2	1	5	4	9	5	6	7	3
9	2	8	6	1	7	4	3	5
7	6	3	8	5	1	2	4	9
4	8	9	3	2	6	1	5	7



Hieroglifikoa:
Bider bi.

AI, ENE!

Hotz egiten duela? Eta zer?

Ohiko berokiek, sendoenak izanda ere, beti uzten dute azal zatiren bat estali gabe. Argazkikoarekin, akabo arazoak!
www.nopuedocreer.com

AHOBERO

"Ahal banu, neure buruari emango nioke Urrezko Baloia lortzeko botoa"

CRISTIANO RONALDO | FUTBOL JOKALARIA

Zein da diplomaziaren eta faltsukeriaren arteko muga? Portugaldarrari berdin zaio: ezin esan umila denik, baina egiazalea, behintzat, bai."Uste dut jokalari guztiek berdina egingo luketela", gaineratu du. Horretan zalantza gehiago ditugu.
'France Football' aldizkaria

EGURALDIA

Max. 11º
Min. 7º

Egoera egonkortuz joango da. Ipar isurialdean hodeiak itsatsita jarraituko dute.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2012-11-12

HAMARREKOA

Martxelo Rubio '27 ordu' filmean ezagutu genuen donostiarrak eskarmentu handia du *Goenkale*–n; domekan Oñatin egongo da, bakea lortzeko egindako sukalde lanari buruzko *Su Txikian* obrarekin | TXOMIN MADINA

"Hasieran ez nintzen aktore sentitzen, jolasa zen niretzat"

1. Josu Jon Imaz eta *Thierry* zara *Su Txikian*–en. Erronkei beti baietz?
Beldurra eman arren, bai. Erronkak onak dira gauzak gainditzeko; hazteko eta handitzeko. Eskaini zidatenean oso interesgarria iruditu arren, bertigo apur bat ere eman zidan: gai potentea da eta begi asko izango ditugu gainean.

2. Eta zeinen azalean erosoen?
Biak bideoak ikusiaz prestatu ditut. Aktore moduan, egiteko akaso politagoa da *Thierry*. Kartzelara bisitan doan aita baten papera ere egiten dut: txikia da, baina oso-oso gustuko dut.

3. Antzezlan dokumentala ei da.
Ez dakit izena ondo jarrita dagoen. Dokumentala da, dokumentu asko dagoelako, baina Galder [Perez, zuzendaria] ahalik eta gehien antzerkira eramaten saiatu da. Datu asko egon arren, gatazkarekin eszena asko daude.

4. Zein da gakoa horrelako antzezlan batek funtzionatzeko?
Jakingo banu, ekoizle bihurtuko nintzateke! Uste dut honetaz hitz egiteko garaia dela eta morbo puntu bat ere baduela. Lan asko egin dugu eta talde giro ona sortu da.

5. 20 urterekin, *27 ordu* filma. Interpretazioan lehen aldia izateko, ez dago gaizki!
Batere gaizki! Alderantziz hasi nintzen: sekulako zuzendari, gidoi eta produkzio-etxearekin. Zortea izan nuen; orduan ez nintzen aktore sentitzen, jolasa zen niretzat.

AGM

6. Jarraitzen duzu harremanetan Banderas eta Verdurekin?
Lehen; bai; egun, ez. Maribelekin, Madrilen ikusiz gero, oso harreman ona dut. Antoniorekin bere garaian oso harreman ona neukan, baina orain beste mundu baten dago.

7. *Goenkale*–n Jon Kepa izaten hasi zinen, ETBko lehenengotako homosexuala. Inoiz arazorik?
Ez. Proposatu zidatenean esan genuen homosexual normala egingo genuela, karikaturizatu gabea. Oso argi genuen hori, eta zentzu horretan zerbait ona egiten ari ginela sentitzen genuen.

8. Orain Kandido zara. Ez da arraroa egiten telesail berean bi pertsonaia egin izana?
Hasieran, apur bat; kontua da bien artean denbora luzea pasatu zela. Itzultzean, jendeak gogoratzen zuen: Behobia korritu nuen, eta Kandido eta Jon Kepa, biak esanaz animatzen ninduten.

9. Heldu al zaizu aktore moduan guztiz aseta utzi zaituen lanik?
Nahiko aseta bai: *El amigo de John Wayne* eta *Nacidos culpables* lanetako pertsonaiek. Amestutako lanik? Akaso *Hamlet*, baina zaila iruditzen zait.

10. Realarekin, aurten, sufritzea edo gozatzea tokatuko da?
Gozatzea espero arren, badirudi ezetz! Bigarren zatian hobetuko da. Txikitatik naiz Realzale amorratua; neskalagunari esaten diot gaixotasun kronikoa dela.

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Armak kulturagatik trukatuko nituzke"

"Gustatuko litzaidake munduko arma guztiak kulturarekin zerikusia duen zerbait bihurtzea: pistola bat, gitarra, esate baterako; edo tanke bat, pelikula. Gerrak amaitzea gustatuko litzaidake, eta kultura gehiago egotea".

BIHARAMUNA

ITXARO ARTOLA

Barrrura eta aurrera begiratzeko gozabideak

Kulturaren efektu katarsikoan sinesten dut. Funtzio estetikoaz gainera, barrenak ireki, haizatu eta arnasberritzeko ere balio dezakeela. Hartzailearentzat, sortzailearentzat beste. Azkenaldian plazaratzen ari diren hainbat lan aukeran datozkigula iruditzen zait. Herri bezala ilusioz eta adorez aurrera egiteko garbiketa emozional baten premia ere badaukagulako, urrats politikoez aparte. Martutene, Twist, Gaur zortzi eta Atzerri nobelak, Su txikian antzezlana, Herrira Noa ikuskizun kolektiboa, Barrura begiratzeko leihoak eta Dragoi ehiztaria filmak... Zein bere ikuspegitik, baina gutaz eta gugandik hitz egiten duten obrak dira denak. Gure historia garaikidea kontatzeari ekin diogu, ahots propioz eta anitzez behingoan. Bertso eta kantagintzatik haratago, literatura, antzerkia eta zinema ere horretara jarri ditugu, 60ko hamarkada loriatsutik ez bezala. Akaso kasualitatez egin dute bat denboran. Baina nik bidea arintzen lagunduko diguten bizigarritzat dastatu gura ditut. Gustu baduzue, goza itzazue eta atera zukgua zuek ere. Bidea gogorra izango baita oraindik. Helmuga urruti baitaukagu eta haizea kontrara, hegotik nahiz iparretik..

IKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR